

# Elikaduraren subiranotasuna Salvadorren

LANDA GUNEKO LANGILEEN  
KONTSEILU NAZIONALA  
(CNTC)

2010



# Elikaduraren subiranotasuna Salvadorren

## LANDA GUNEKO LANGILEEN KONTSEILU NAZIONALA (CNTC)



Aholkularia: SALVADOR ARIAS DOKTOREA

# EDUKIA

<b>TAULEN AURKIBIDEA</b>	<b>3</b>
<b>GRAFIKOEN AURKIBIDEA</b>	<b>4</b>
<b>ERANSKINEN AURKIBIDEA</b>	<b>4</b>
<b>I. EKOIZPEN ZEIN MERKATURAKETA NAZIONALA BABESTEKO ETA ARAUTZEKO ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN HELBURUAK LORTZEKO DAUDEN BALDINTZAK</b>	<b>7</b>
A. Nekazaritza zein abeltzaintzako ekoizpenaren geldialdia eta lurraren azpialdiera	7
B. Lurraren edukitza eta nekazaritzaren eraldaketa sakon bezain integralaren premia: ekoizpen-unitateen tamaina eta edukitzaren legalizazioa	8
C. Indarreko politika sektorialak	12
<b>II. SALVADORKO ELIKADURAREN AUTOASKITZA</b>	<b>18</b>
A. Merkataritza-balantzan eragindako ondorioak	18
B. Salvadorko nekazaritzan eragindako ondorioak	19
C. Ekoizpenerako dirulaguntza	21
D. Enpleguan eta lan-eskubideetan eragindako ondorioak	22
E. Salvadorrek sentikortzat hartutako produktuen arloan AEBetatik egindako inportazioak	25
<b>III. SOLDATA ARLOKO TXIROITASUNA, LANDA HEZKUNTZA ETA EMAKUMEEN BAZTERKETA</b>	<b>34</b>
A. Landa-soldatak	34
B. Lan-egoera	36
C. Bizi-kostua eta soldatak	41
D. Landa-txirotasuna	42
E. Hezkuntza eta analfabetismo mailak	42
<b>IV. ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNA: SALVADORKO NEKAZARIEN ERAKUNDEEK PROPOSATUTAKO ESTRATEGIA ETA IKUSPEGIA</b>	<b>46</b>
A. Elikaduraren subiranotasunaren kontzeptua, eskuratzeko moduko ekoizpen iraunkorren ikuspegitik	46
B. Elikaduraren subiranotasunaren ereduaren ezarpenean aurrera egiteko asmoz, Salvadorko nekazarien erakundeek proposatutako estrategia, neurriak eta nekazaritza-politikak	49
3. Ekoizle nazionalen prezioak bermatzeko eta biztanleei oinarrizko elikagai merkeak hornitzeko politika	56
<b>ERANSKINAK</b>	<b>66</b>

## TAULEN Aurkibidea

<b>1. Taula</b>	GAINAZALAREN BANAKETA NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO PRODUKTU KATEGORIAREN ARABERA (2006)	8
<b>2. Taula</b>	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZLEAK, USTIATEGIAREN AZALERAREN ETA DEPARTAMENTUAREN ARABERA	9
<b>3. Taula</b>	NEKAZARITZA ERALDATZEKO PROZESUEN ESPARRU JURIDIKOA	11
<b>4. Taula</b>	KOOPERATIBEK ETA PARTIKULARREK NEKAZARITZA ARLOAN ORDAINDU GABE DUTEN ZORRAREN LABURPENA	12
<b>5. Taula</b>	SALVADOR: UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPENA, AZALERA ETA ERRENDIMENDUA (2005-2006 ETA 2006-2007)	13
<b>6. Taula</b>	OINARRIZKO ALEEN ARLOAN NEKAZARITZA URTEAN AURREIKUSITAKO EKOIZPENA (2007-2008)	13
<b>7. Taula</b>	NEKAZARITZA URTEKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPENA (2007-2008)	14
<b>8. Taula</b>	OINARRIZKO ELIKAGAIEN OTZARAKO PRODUKTUEN PREZIOAK, LEHEN ETA GAUR EGUN	14
<b>9. Taula</b>	ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNA SUSTATU NAHIAN, PRESIDENTETZAK HAZI HOBETUA ETA ONGARRIA BANATZEKO ABIAN JARRITAKO PROGRAMA	15
<b>10. Taula</b>	SALVADOR: 2006-2009ko MERKATARITZA BALANTZA (milioika US\$-tan)	18
<b>11. Taula</b>	INPORTAZIOEN PROPORZIOA ESPORTATUTAKO DOLAR BAKOITZEKO	19
<b>12. Taula</b>	MUNDUKO LEKU GUZTIETATIK INPORTATUTAKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK KINTALETAN	20
<b>13. Taula</b>	UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA KINTALETAN (2007-2008)	23
<b>14. Taula</b>	UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALEAN SORTUTAKO LANPOSTUAK KINTALETAN (2007-2008)	23
<b>15. Taula</b>	NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK INPORTATZEAGATIK GALDUTAKO LANPOSTUAK	24
<b>16. Taula</b>	INDARREKO GUTXIENEN SOLDATEN TARIFAK	35
<b>17. Taula</b>	LANGABEZIA ETA AZPILAN MAILA, SEXUAREN ARABERA	38
<b>18. Taula</b>	JARDUERA EKONOMIKOKO ADARRAREN, SEXUAREN ETA LANDA ARLOKO LAN KATEGORIAREN ARABERAKO OKUPATUAK	38
<b>19. Taula</b>	OTZAREN KOSTUAREN ETA HILEKO GUTXIENEN SOLDATEN ARTEKO LOTURA (2009ko ABENDUA)	41
<b>20. Taula</b>	LANDA ARLOKO TXIRO TASUN MAILA (2007)	42
<b>21. Taula</b>	NAZIOKO ANALFABETISMO MAILA (2007)	43
<b>22. Taula</b>	NAZIOKO HEZKUNTZA FORMALERAKO ZENTROETAKO ASISTENTZIA	43
<b>23. Taula</b>	5 URTEKO BIZTANLEEK ETA HORTIK GORAKOEN SALVADORREN LORTUTAKO HEZKUNTZA MAILA	44
<b>24. Taula</b>	4 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK, LANDA ARLOKO ESKOLA ASISTENTZIAREN ARABERA	45
<b>25. Taula</b>	ZENBAIT ARRAZOIRENGATIK IKASTEN EZ DUTEN 4 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK (LANDA GUNEAN)	45
<b>26. Taula</b>	5 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK, GAINDITUTAKO IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA (LANDA GUNEAN)	46
<b>27. Taula</b>	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZLEAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO JARDUERAREN ETA SEXUAREN ARABERA (LANDA GUNEAN)	46
<b>28. Taula</b>	OINARRIZKO ALEETARAKO DIRULAGUNTZA, KREDITU ETA MERKATURAKETA POLITIKAK	51
<b>29. Taula</b>	ORTUARIETARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	52
<b>30. Taula</b>	BESTE GORDAILU SOZIALATE BATZUEK SEKTORE PRIBATUARI EGINDAKO MAILEGUAK, HELMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA	54
<b>31. Taula</b>	OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA	59
<b>32. Taula</b>	MUNDUKO LEKU GUZTIETATIK INPORTATUTAKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK	59
<b>33. Taula</b>	OINARRIZKO ALE ETA ORTUARIETARAKO DIRULAGUNTZA, KREDITU ETA MERKATURAKETA POLITIKAK	65

## GRAFIKOEN Aurkibidea

<b>1. Grafikoa</b>	KAFEZAINZAKO KRISIAREN TRENA	16
<b>2. Grafikoa</b>	ARTO ZURIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	25
<b>3. Grafikoa</b>	ARTO HORIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	26
<b>4. Grafikoa</b>	AZALDUN ARROZAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	27
<b>5. Grafikoa</b>	ARROZ PROZESATUAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	27
<b>6. Grafikoa</b>	TXERRIKIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	28
<b>7. Grafikoa</b>	BEHIKIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	29
<b>8. Grafikoa</b>	ESNE HAUTSAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	30
<b>9. Grafikoa</b>	JOGURTAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	31
<b>10. Grafikoa</b>	GURINAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	31
<b>11. Grafikoa</b>	GAZTEN INPORTAZIOEN BILAKAERA	32
<b>12. Grafikoa</b>	IZOZKIEN INPORTAZIOEN BILAKAERA	32
<b>13. Grafikoa</b>	BESTE ESNEKI BATZUEN INPORTAZIOEN BILAKAERA	33
<b>14. Grafikoa</b>	OILASKOAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA	34
<b>15. Grafikoa</b>	NEKAZARITZAKO SOLDATA NOMINALA ETA BENETAKOA	36

## ERANSKINEN Aurkibidea

<b>1. Eranskina</b>	OHIKO ARROZAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	66
<b>2. Eranskina</b>	NEGUKO BABARRUNAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	67
<b>3. Eranskina</b>	ERDI TEKNIFIKATUTAKO ARTOAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	68
<b>4. Eranskina</b>	ERDI TEKNIFIKATUTAKO BASARTOAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	69
<b>5. Eranskina</b>	TXILE GOZOAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	70
<b>6. Eranskina</b>	PATATAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	71
<b>7. Eranskina</b>	BURU AZAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	72
<b>8. Eranskina</b>	ANGURRIAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	73
<b>9. Eranskina</b>	TOMATEAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	74
<b>10. Eranskina</b>	JUKAREN MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUAK	75
<b>11. Eranskina</b>	ARROZERAKO DIRULAGUNTZA, HORNIKUNTZA KREDITU, MERKATURAKETA ETA BERME PREZIOE-TAKO POLITIKA	76
<b>12. Eranskina</b>	NEGUKO BABARRUNERAKO DIRULAGUNTZA, HORNIKUNTZA KREDITU, MERKATURAKETA ETA BERME PREZIOETAKO POLITIKA	77
<b>13. Eranskina</b>	ERDI TEKNIFIKATUTAKO ARTORAKO DIRULAGUNTZA, HORNIKUNTZA KREDITU, MERKATURAKETA ETA BERME PREZIOETAKO POLITIKA	78
<b>14. Eranskina</b>	ERDI TEKNIFIKATUTAKO BASARTOAREN DIRULAGUNTZA, HORNIKUNTZA KREDITU, MERKATURAKETA ETA BERME PREZIOETAKO POLITIKA	79
<b>15. Eranskina</b>	TXILE GOZORAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	80
<b>16. Eranskina</b>	PATATARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	80
<b>17. Eranskina</b>	BURU AZARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	81
<b>18. Eranskina</b>	ANGURRIRAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	81
<b>19. Eranskina</b>	TOMATERAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	82
<b>20. Eranskina</b>	JUKARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	82
<b>21. Eranskina</b>	OINARRIZKO ALEETARAKO DIRULAGUNTZA, KREDITU ETA MERKATURAKETA POLITIKA	83
<b>22. Eranskina</b>	ORTUARIETARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA	84
<b>23. Eranskina</b>	OINARRIZKO ALE ETA ORTUARIETARAKO DIRULAGUNTZA, KREDITU ETA MERKATURAKETA POLITIKAK	85

## Elikaduraren subiranotasuna: herriek euren elikadura eta nekazaritza zehazteko duten eskubidea

Mundu zein eskualde mailako eta, batez ere, gure herrialdeko nekazarien erakundeek eredu neoliberala jarri dute kolokan, mundu zabaleko nekazarien ekonomiak suntsitu dituelako eta landa nahiz hiri inguruneke txirotasuna mundu zabalean areagotu duelako —egoera hori are nabariagoa da garatu gabeko herrialdeetan bertako elikaduraren segurtasuna gero eta urriagoa delako, FAOk berak salatu duenez.- Horrez gain, neoliberalismoak ezarritako nekazaritza-negozioena ez bezalako eredu abian jartzeko ekimena proposatu zuten, Nekazarien Bidean egituratutako nekazarien erakundeen bitartez: elikaduraren subiranotasunaren eredu.

Salvadorren, neoliberalismoak politika ekonomikoan hartu zituen erabaki nagusietakoaren ondorioz, nekazaritzako politika sektorialak desegin zituzten. Hori dela eta, nekazarien nekazaritza eta, oro har, nekazaritza bera babesten zuten politikak eta instituzioak azkar-azkar desegituratu eta desagertu egin ziren. Horrela, bada, CENTA pribatizatu zen, eta herrialdeko programa zein proiektu nagusiak desegin zituzten, nahiz eta euren bidez oinarritzko aleak ekoitzi eta, kasu batzuetan, arrozen, esaterako, esportatzaileak izatea lortu. Gauza bera gertatu zen oinarritzko aleen teknologian, Salvadortik herrialdean bertan sortutako arto, arroz, basarto eta babarrunen hazi hibridoak esportatzen zirelako.

Salvadorrek teknologia sortu eta ugaltzen zuen oinarritzko aleetan, elikadurarako beste laborantza batzuetan, arrain-hazkuntzan eta abere-azpisektoreko espezie txikiagoetan. Hori guztiori oso-oso desegin zuten edo bete-betean murriztu zuten, behintzat, CENTA pribatizatzean. Era berean, Nekazaritzako Eskola Nazionala ere pribatizatu zuten, eta ia-ia desagertu ere egin zen. Bestetik, Nekazaritza eta Abeltzaintza Hedatzeko Zerbitzuak ere desegituratu zituzten, nahiz eta teknologia nekazaritzako ekoizpena transferitzeko lotunea izan. Halaber, Hornikuntzak Aratzeko Institutua suntsitu zuten, oinarritzko aleen nekazari ekoizleentzako berme-prezioak desagertu ziren, eta koioteen (bitartekarien) esku utzi zituzten. Horren ondorioz, are gehiago txirotu ziren, haien espekulazioaren gorabeheren eraginpean geratzean. IRA desagertzean, sekulako jipoia hartu zuten familia txiroek, euren elikaduraren oinarritzko otzara garestitu egin zelako. Hori dela eta, Salvadorko familien elikaduraren segurtasuna are gehiago urritu da. IRA desagertzean, oinarritzko aleen kanpo-merkatua bete-betean liberalizatu zen, inportazio-kuotak desagertu ziren eta arantzelak ikaragarri murrizten hasi ziren. Beraz, gaur egun, biztanleak oinarritzko aleen eta, oro har, nekazaritzako zein abeltzaintzako produktuen inportazioen menpe bizi dira. Salvadorren, muturreko menpetasun-egoerak daude elikaduraren arloan, eta, arrozen laborantzari dagokionez, %70etik gorakoa da menpetasun-maila hori.

Horren guztiorren ondorioz, sustapen-banka ahuldu egin zen, estatuko kreditu-politikak desagertu ziren eta dolarizazioa ezarri zen. Aldi berean, nekazaritzaren nazioarteko merkataritza irekitzean, ekoizpen nazionala inolako babesik gabe geratu zen.

Politika neoliberal horiek guztiek eraldatutako sektoreko nekazaritza suntsitzea zuten helburu<sup>1</sup>. Izan ere, sektoreak berak ez du ez bere funtzionamendurako finantziaziorik ez ekoizpen-unitateetarako kapitalizaziorik, eta bankuen jazarpenari aurre egin behar izan dio, nekazaritza eraldatzeko prozesu ustean eta sektoreko ekoizpena jipoitu zuten krisi naturaletan sortutako nekazaritza eta banku zorraren ondorioz. Horrez gain, eraldatutako sektoreko kooperatiba

*1 Bertan, laurogeiko hamarkadako nekazaritza-eraldaketak eduki zuen eragina.*

askotako zuzendarien politika instituzional ustela ezarri zen, eta, horretarako, lurren pribatizazioarako politika sustatu zen, lur-zatiketan oinarrituta.

Neurri hori baldintza moduan ezarri zen, eraldatutako sektorean eragina zeukan bahitura-prozesua geldiarazteko. Dena dela, kooperatiba eta banan-banako jabetza ugari bahitu dituzte zuzenean edo zeharka, eta, lur-zatiketa horren bidez, lurra metatzeko prozesua elikatu da Salvadorren.

Hori guztiori dela eta, azken hogeita bat urteotan, elikagaien ekoizpena gelditu egin denez, elikadura-menpetasuna gero eta handiagoa da. Politika horien ondorioz, sekulako jipoia hartu du nekazarien ekonomiak, landa-inguruneke langabezia-tasa handitu da eta, horren ondorioz, familia nekazariak are gehiago areagotu dira. Herrialde honetan, ez dago elikaduraren subiranotasunik, eta horixe bera izan da neoliberalismoak utzi digun herentzia nagusietakoa. Beraz, guretzat borroka-bandera da neoliberalismoko nekazaritza-negozioen ereduaren ordeztasunaren subiranotasunaren eredu ezartzea.

Salvador eta Erdialdeko Amerikako elikadura-menpetasuna gero eta handiagoa da, eta, FAOk terminologiaren arabera, garatu gabeko herrialdeetako pertsona gehienek euren elikaduraren segurtasuna galtzen dutela esan nahi du. Hala ere, mundu-mailako fenomeno ere badela esan beharra dago, FAOk 2008ko uztailean Erroman egindako azken bileran egiaztatu zen bezala. Goi-bilera hori munduko elikaduraren gaur egungo krisiari aurre egiteko antolatu zen. Bertako hasierako diskurtsoan, Dioufek (FAOk zuzendariak) adierazi zuenez, **2006an munduak AEBetako 1,2 bilioi dolar gastatu zituen armetan, 100.000 milioi dolarreko balioa zuen jatekoa alferrik galdu zen eta lodien larregizko kontsumoa 20.000 milioikoa izan zen mundu-mailan.**

“Egoera hori kontuan hartuta, nola azalduko diegu fede oneko pertsona zentzudunei ezinezkoa dela urtean 30.000 milioi dolar aurkitzea, goseak dauden 862 milioi lagunek funtsezkoena den giza eskubidea eduki dezaten: elikadurarako eskubidea eta, horren ondorioz, bizitzarako eskubidea?”, galdetu zion Dioufek bere buruari. “Horrelako baliabideei esker, badago etorkizunari begira elikagaien inguruan iragarritako gatazkak behin betiko konpontzerik”, erantsi zuen.

“Munduko elikaduraren segurtasunaren arazoa konpontzeko, diru-sarrera gutxiko eta elikadura-defiziteko herrialdeetako ekoizpena eta emankortasuna areagotu behar dira”, ziurtatu zuen. Horretarako, “irudimenezko konponbide berritzaileak” aurkitu behar dira; esate baterako, “finantza-baliabideak, kudeaketa-gaitasuna eta teknologia dituzten herrialdeak eta lurra, ura eta giza baliabideak dituzten herrialdeak elkartzeko hitzarmenak sinatzea”. Dioufen esanetan, munduko gaur egungo elikaduraren krisiak “ondorio sozial eta politiko larriak” eragin ditu “zenbait herrialdetan”, eta are gehiago jarri litzake arriskuan “munduko bakea eta segurtasuna”. Hala ere, berak adierazi zuenez, krisia bera “iragarritako hondamendiaren kronika” da funtsean. 1996an Elikadurari buruz egindako Munduko Goi Bileran, 2015. urterako munduko gosetien kopurua erdira jaitsiko zela agindu arren, garapen-bideko herrialdeetako nekazaritza-programak finantzatzeko baliabideak ez dira areagotu. Izan ere, nabarmen murriztu dira urteotan.

Bioenergiaren eta klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko gaude hemen. Era berean, elikagaien prezioak ere igotzen ari dira gaur egun, eta ondorio kaltegarriak eragin dituzte elikaduraren segurtasunean, garapen-bidean eta iragaitzan dauden herrialdeetan, batez ere. Fenomeno horiek are larriagoak dira, hurrengo urteetan ere elikagaien prezioak garestiak izango direla adierazten denean.

Jakin badakigu nazioarteak premiazko neurri koordinatuak hartu behar dituela, elikagaien prezioen igoerak munduko herrialde eta biztanle ahulenetan dituen eragin kaltegarriari aurre egiteko. Horrez gain, jakin badakigu gobernu nazionalak epe labur, ertain eta luzearako ekimenak jarri behar dituztela abian, nazioartearen laguntzaz. Horrela, munduak eta familiek elikaduraren segurtasunaren arloan dituzten premiak estali ahal izango dira. Beraz, garapen-bidean eta iragaitzan dauden herrialdeei lagundu behar zaie nekazaritza nahiz elikagaigintza hedatzen eta iturri publikoek zein pribatuak nekazaritzan, nekazaritza-negozioetan eta landa-garapenean inbertitzen dutena handitzen.

## I. EKOIZPEN ZEIN MERKATURAKETA NAZIONALA BABESTEKO ETA ARAUTZEKO ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN HELBURUAK LORTZEKO DAUDEN BALDINTZAK

### A. Nekazaritza zein abeltzaintzako ekoizpenaren geldialdia eta lurraren azpierzabilerak

Lehen esan dugunez, nekazaritza eta abeltzaintzarako politika sektorialak desagertu dira, kotoi- nekazaritza bertan behera utzi dute, ehun milaka nekazari hiriguneetarantz eta kanporantz immigratu behar izan dute eta laborariak ez diren nekazari askok porrot egin dute. Hori guztiori dela eta, nekazaritzako zein abeltzaintzako ekoizpena gelditu egin da. Horretarako, nekazaritzak BPG nazionalan zeukan pisua nola murriztu den ikusi besterik ez dago. Horrez gain, kafearen ekoizpena ere %50 baino gehiago gutxitu da, eta kotoiaren ekoizpena desagertu da, haren orde inolako ekoizpen-jarduerarik ezarri gabe. Bestetik, oinarriko aleen ekoizpenaren geldialdi birtuala ere aipatu beharra dago, 1975. urteko ekoizpenaren aldean, hazkuntza marjinala izan da eta. Abeltzaintza ez da batere dinamikoa, gaur egungo datua duela 35 urteko datuaren antzekoa da eta. Halaber, kanbera-industriak ere ez du inolako dinamismorik, eta, funtsean, barne-merkatuko laguntzari eta AEBetako merkatuko lehentasunezko kuotari esker dago abian. Azken batean, gure nekazaritza-sektoreak ez du emankortasun-arloko garapen adierazgarriarik, teknologia berriak ezartzeko aukerarik ez dagoelako. Nolanahi ere, bioteknologiaren garapenak errentagarritasun handiko bide berria urratu du nekazaritzako elikagaigintzari begira.

Horrez gain, nekazaritzako zein abeltzaintzako intsumoak etengabe garestitzen ari dira, lehia desleiala da erabat ekonomiaren irekieraren eta merkataritza aserako itunen esparruan eta, merkatuetako zenbait sektore eta adarretan, erabilera espekulatiboa eta egitura oligopolikoen eraketa dira nagusi. Hori guztiori dela eta, gure nekazaritza ez da lehiakorra, aurreko paragrafoetan azaldutako politika neoliberalen testuinguruan.

Suspergarriak ez dagoenez eta nekazaritza zein abeltzaintza kondentatuta daudenez, egiturazko aldaketa handiak gertatu dira herrialdeko landa-sektorean. Dena dela, badago kontraesanik, 418.819tik gora mantzana (293.173 hektarea) lur alfer daudelako herrialdean, eskuragarri dauden lur guztien %16,4, alegia.

Fenomeno hori are larriagoa da, ia-ia I. eta II. mailako 136.000 mantzana (95.200 hektarea) lur utzita daudela egiaztatzean (1. taula). Era berean, III. eta IV. mailako 50.000tik gora mantzana (35.000 hektarea) lur ere badaude egoera berean. Beraz, gure herrialdeko 441.870 mantzanako (309.309 hektareako) lurzoru lau guztiak kontuan hartuta (eskuragarri dauden nekazaritza-lurren %15), %31 lur alferrak dira.



Era berean, landa-inguruneko langabezia-tasak eta azpienplegu-tasak %76tik gorakoak dira ekonomiari begira aktiboak diren biztanleen artean, Salvador bera herrialde mugatua da lurraldeari begira eta presio demografiko handia du. Hori dela eta, baieztatu egin daiteke neoliberalismoak ez duela ezertan asmatu Salvadorren, nekazaritza iraunkorra lortzeko, landa-sektorearentzako bizi duina bilatzeko eta elikaduraren subiranotasunerako politika ezartzeko orduan.

## 1. Taula

### GAINAZALAREN BANAKETA NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO PRODUKTU KATEGORIAREN ARABERA (2006)

Oinarritzko aleak landatuta dituzten gainazalak kontuan hartuta, %85 malda handiko lurrak dira; eta gainerako %15a, lurzoru lauak. Dena dela, kanaberaren laborantzarako ustezko guneetatik banatuta dago.

GAINAZALAREN BANAKETA NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO PRODUKTU KATEGORIAREN ARABERA (2006)

PRODUKTU KATEGORIAK	GAUREGUNGO Mz
<b>NEKAZARITZAKO SEGMENTUA</b> (aleak, fruta-arbolak, ortuariak eta beste batzuk)	<b>398.480</b>
<b>AGROINDUSTRIALAK</b>	
KAFEA (IV, V eta VI. lurzoru-mailak)	229.921
AZUKRE KANABERA (I., II. eta III. lurzoru-mailak)	87.145
BESTE AGROINDUSTRIAL BATZUK	10.934
<b>BASO MASA</b> (baso naturala, VI. eta VII. lurzoru-mailak eta I. mailako baso gazia)	513.063
<b>ABELTZAINZA</b>	808.233
<b>LUR ALFERRAK</b>	
MEKANIZAGARRIA I-II. MAILAK (kanaberaren laborantzarako dira egokiak)	135.850
III-IV. MAILAKO LURZORUAK (%50 kanaberaren laborantzarako dira egokiak)	50.455
V-VIII. MAILAKO LURZORUAK	295.524
<b>BESTE ERABILERA BATZUK</b> (ur-ispiluak, laba, hirikoak...)	<b>416.195</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.945.800</b>

B. Lurraren edukitza eta nekazaritzaren eraldaketa sakon bezain integralaren premia: ekoizpen-unitateen tamaina eta edukitzaren legalizazioa

Minifundioak ugaltzeko prozesua eta lurren pilaketa herrialdean ikertu beharreko oso gai garrantzitsuak dira. Agiri honetan, horri buruzko iritzia emango dugu. Ekonomia Ministerioko Estatistika eta Errolden Zuzendaritza Nagusiko informazioa erabiliz gero (2. taula), ekoizleen kopuruari eta ustiatzearen tamainari buruzko datuak lortu daitezke. Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioak nekazaritzan zein abeltzaintzan zenbat lur erabiltzen den adierazten du: 2008. urterako, 2.529.805 mantzana, guztira (1. taula ikusi).

## 2. Taula

### NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINITZAKO EKOIZLEAK, USTIATEGIAREN AZALERAREN ETA DEPARTAMENTUAREN ARABERA

ARLOA ETA DEPARTAMENTUA	GUZTIRA	MANTZANAK					20 BAINO GEHIAGO
		BAT BAINO GUTXIAGO	1-2	3-4	5-10	11-20	
<b>GUZTIRA</b>	<b>265,513</b>	<b>108,522</b>	<b>99,049</b>	<b>18,156</b>	<b>14,412</b>	<b>4,939</b>	<b>20,435</b>
AHUACHAPAN	19,102	8,509	7,028	1,298	604	73	1,590
SANTA ANA	25,155	8,599	11,209	1,806	1,808	519	1,214
SONSONATE	12,078	5,944	2,794	724	234	631	1,751
CHALATENANGO	16,561	6,399	5,623	782	1,551	587	1,619
SAN SALVADOR	19,365	8,155	7,055	516	1,532	340	1,767
LA LIBERTAD	14,273	7,257	4,508	749	150	121	1,488
CUSCATLAN	16,370	5,691	7,343	1,304	1,012	-	1,020
LA PAZ	15,859	8,405	4,602	574	848	74	1,356
CABAÑAS	15,397	5,969	6,421	931	1,034	243	799
SAN VICENTE	14,197	6,213	5,488	1,238	484	108	666
USULUTAN	20,537	6,279	8,934	1,345	1,322	304	2,353
SAN MIGUEL	31,896	12,299	11,804	2,890	1,366	1,114	2,423
MORAZAN	21,330	10,086	6,804	2,008	1,330	316	786
LA UNION	23,393	8,717	9,436	1,991	1,137	509	1,603

ITURRIA: EKONOMIA MINISTERIOA. ESTADISTIKA ETA ERROLDEN ZUZENDARITZA NAGUSIA. HELBURU ANITZEKO FAMILIE BURUZKO INKESTA, 2007

Informazio hori prozesatu eta edukitza-geruza bakoitzaren goi-muga edukitzaren batez besteko tamainatzat hartu ondoren, ekoizle-geruza bakoitzaren lurra zehaztu daiteke ustiategiaren tamainaren arabera. Edonola ere, horrelaxe egindako kalkuluak batezbestekoaren gainetik dauden mailetarantz darama edukitza. Hori dela eta, geruza bakoitzaren kontrolpean dagoen lurraren guztizkoa neurritz kanpo dago zenbatetsita. Hori horrela izanik ere, prozesu hori erabili da, minifundio eta lur-pilaketen maila zehazteko orduan.

Beraz, mantzana batetik (0,7 hektareatik) beherako lursailak dituzten biztanleei dagokienez, lur horien azalera 108.522 mantzankoa da (75.965 hektarea) batez beste, geruza horretako ekoizle guztiek mantzana bat dutela kontuan hartuta. Hartara, guztiek mantzana batetik beherako lur-zatia eduki arren, agerikoa da minifundioen kategorian sartzen direla. Horren ondorioz, lehen geruzako 108tik gora nekazari minifundistak dira, euren ustiategiak ez dira bideragarriak egiturari begira eta ez dute inolako aukerarik txirotasunetik irteteko.

Bestetik, bigarren geruzako adibidea ere badugu: 1-2 mantzana. Oraingoan ere, geruza honetako ustiategi guztiek bi mantzana (1,4 hektarea) dituztela kontuan hartu denez, lurjabeek 198.098 mantzana (138.669 hektarea) kontrolatuko lituzkete guztira.

Azkenik, mantzana bat baino gutxiago eta hogeit hamar mantzalaraino dituzten jabeen geruzak 245.078 ekoizpen-unitate ditu guztira. Talde horrek, beraz, 622.224 mantzana (435.557 hektarea) kontrolatuko lituzke guztira, guztizko hori neurritz kanpo zenbatetsita dagoela kontuan hartuta. Geruza horretako ustiatzearen batez besteko tamaina 2,5 mantzarako daenez, 2007. urtean herrialdeko ustiatzearen guztien %92,4k nekazaritza eta abeltzaintzarako erabilgarriak lurraren %14,7 kontrolatzen zuten gehienez.

Beste muturrean, ordea, hogeitik gora mantzarako (14tik gora hektareako) jabetzen geruza dago. Jabe horiek 20.435 ekoizpen-unitate dituzte guztira, eta 1.907.381 mantzana kontrolatzen dituzte (1.335.167 hektarea). Beraz, herrialdeko nekazaritza eta abeltzaintzarako erabilgarriak lur guztien %75,3 kontrolatzen dituzte. Horren ondorioz, 20tik gora mantzarako jabetzak dituzten ekoizleen 7,6k kontrolatzen dute lurraren %75,3.

Lurra pilatzeko arazoaren inguruko hurbilketa azpitik zenbatetsita dago, hurbilketa-kalkuluarengatik. Dena dela, agerikoa da pilaketa handiagoa dela, herrialdeko burgesia oligarkikoko kide askok lurra berpilatzeke erabili dituzten zeharkako mekanismoen ondorioz.

Lehenengo eta behin, laurogeiko hamarkadako nekazaritza-eraldaketa gertatu aurretik, burgesia oligarkikoa bere jabetzen edukitza zatitzen hasi zen. Horrela, bada, bere lurren jabetza seme-alaben eta beste senide batzuen artean banatu dituzte, familian bertan geratu ahal izan da lurren kontrola. Beraz, lehen adierazi dugunez, lurra ekoizleen %7,6k dutela baieztatzea adibide txikia baino ez da, nazio-mailan edukitza bera pertsonako eta familiako aztertu ahal izango bagenu lortuko genukeen emaitzaren aldean. **Hori dela eta, oraindik ere lurraren edukitzaren pilaketa sakona da Salvadorren, eta badirudi larriagotu egingo dela.**

Lurraren pilaketa gero eta larriagoa da azukre-kanaberaren eta kafearen lur landatuetan, batez ere. Lurjabeen sektoreak bankuekin zein ISTArenkin dituen loturen ondorioz sustatu da fenomeno hori. Izan ere, kooperatibek eta banan-banako jabeek nekazaritzako edo bankuko zorra ordaintzeko eman behar izan duten lur guztiaren erosketa bultzatu dute zenbait instituziok.

Prozesu horrek bere horretan dirau, eta burgesiak berak alfertzat hartutako lurretara hedatu nahi du. Hain zuzen ere, lehen aipatu dugunez, euren azalera 418.819tik gora mantzarako da guztira. Nekazaritzaren eraldaketarako prozesuan emandako lur guztien %74ren baliokidea dira lur horiek, eta, ISTAren arabera, 564.735 mantzarako (395.315 hektareako) azalera dute guztira. Horretarako, Batzar Legegileko Ekonomia Batzordeko Lurren Errentamendurako Lege Proiektua onartu beharko litzateke.

## Lurraren legalizazioa

Familia nekazariak minifundioa dute, eta ez die inolako aukerarik ematen, ekoizle moduan garatzeko eta euren senideen premiei aurre egiteko. Hori dela eta, ez du inolako segurtasun juridikorik bere lurraren legeko edukitzari dagokionez. Hona hemen nekazaritzaren eraldaketarako prozesuan lurra emateko programa guztien esparru juridikoa osatzen duten dekretu guztiak (ikus 3. taula). Lege-esparru horretan, 564.735 mantzana (395.315 hektarea) eman zaizkie 158.911 onuraduni, eta, eurretatik, 158.533 banan-banako ekoizleak dira eta 397.554 mantzana (278.288 hektarea) baino apur bat gehixeago jaso zuten. Gainerakoak, 378, kooperatibak izan ziren, eta 167.181 mantzana (117.027 hektarea) jaso zituzten guztira.

### 3. Taula

## NEKAZARITZA ERALDATZEKO PROZESUEN ESPARRU JURIDIKOA

DEKRETUA EDO LEGEA	HELBURUA
<b>D-842 SEKTORE TRADIZIONALA</b>	NEKAZARITZA ERALDATZEKO OINARRIZKO LEGEA BAINO LEHEN ISTAK EROSITAKO LURRAK ESLEITZEA.
<b>D-153 eta D-154 SEKTORE ERALDATUA ISTA</b>	ISTARI BAIMENA EMATEA, 500etik GORA HEKTAREAKO HIGIEZINETAN ESKU HARTZEKO ETA JABETZEKO.
<b>D-207 III. FASEA FINATA</b>	NEKAZARITZAKO LURRAK NEKAZARI ZUZENEN ALDE AFEKTATZEA ETA ESKUALDATZEA.
<b>D895-896 Konstituzioko 105-267. art. II. FASEA ISTA</b>	245 HEKTAREETAKO SOBERAKO LANDA LURRAK AFEKTATZEA ETA HAIEN HELMUGA ZEHAZTEA.
<b>D-839</b>	NEKAZARITZA ZEIN ABELTZAINZTA BOKAZIOKO LURRAK BORONDATEZ SALEROSTEA.
<b>D-747</b>	ERALDATUTAKO NEKAZARITZAN ETA ABELTZAINZAN LURRA EDUKITZEKO AUKERA BERRIEN SISTEMAPEAN, BANAN-BANAKO ETA TALDEKAKO TRANSFERENTZIARAKO JABETZAK ZATITZEKO AHALMENA EMATEA.
<b>UZTAILAREN 3ko ERABAKIA</b>	NEKAZARIEN ALIANTZA DEMOKRATIKO (ADCKo) KIDEEI LURRAK MODU INDIBISOAN TRANSFERITZEA.
<b>CHAPULTEPEC HITZARMENAK</b>	INDAR ARMATUKO ETA FMLNko (PTTKo) DESMOBILIZATUEI LURRAK TRANSFERITZEA. LURREN BANKUA ETA ISTA.
<b>D-179 ETA BERE ERALDAKETAK</b>	KONSTITUZIOKO 105. ARTIKULUKO HIRUGARREN IDATZ-ZATIAN AIPATUTAKO ARAUBIDE BEREZIA EZARTZEA, NEKAZARITZAREN ERALDAKETARAKO PROZESUA SENDOTZEKO ETA LURRAREN JABETZAN SEGURTASUN JURIDIKOA BERMATZEKO.
<b>D-761 D-719ko 30. art.</b>	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA MINISTERIOARI ETA INGURUMEN ETA BALIABIDE NATURALEN MINISTERIOARI ERALDATUTAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREAN KOKATUTAKO BASOEN BABES ETA ERRESERBARAKO GUNEA TRANSFERITZEA.
<b>D-699 D-263 ETA ERALDAKETAK</b>	NEKAZARITZA ARLOKO ZORRA ORDAINTZEKO EGOKITZAPEN ETA ONUREI BURUZKO LEGEAK EZARTZEA.

Onuradun horiek guztiak kontuan hartuta, ustelkeria eta kalkulu politikorako mekanismo instituzionalen ondorioz, oraindik ere banan-banako 81.088 onuradunek ordaindu gabeko zorra dute, nahiz eta zorra ia-ia osorik barkatzeko dekretuak eman diren. Nolanahi ere, banan-banako onuradunen %51k ez dute euren jabetza legeztatu, eta, ISTAren arabera, badirudi egoera hori laster konponduko ez dela.

## 4. Taula

### KOOPERATIBEK ETA PARTIKULARREK NEKAZARITZA ARLOAN ORDAINDU GABE DUTEN ZORRAREN LABURPENA

Ordainketaren kontzeptua	Onuradunak guztira	Azalera Milaka Ha-tan	Zorra guztira (Milioika dolarretan)	Deskontua (Milioika dolarretan)	Ordaindu beharrekoa (Milioika dolarretan)
Onartutako indarreko kredituak	12.978	6.813,56	25,64	21,08	4,56
Onartu gabeko kredituak *	68.158	21.737,78	55,13	46,29	8,84
<b>GUZTIRA</b>	<b>81.136</b>	<b>28.551,34</b>	<b>80,77</b>	<b>67,37</b>	<b>13,40</b>

\* Aukera berrien proiektuetako kooperatibetako onuradunak, 245 hektareetako soberakinak eskatzen dituzten banan-banako onuradunak, ordainean emateko prozesuak, indibisioen haustura, ezeztatu gabeko lur-zatien berresleipena. Jatorrizko inskripzioa, sektore tradizionala. CNRk neurtu eta onartutakoa.

Kooperatiba eta elkarteetako onuradunei dagokienez, 48k ez dituzte euren lurak legeztatu, guztira 378 onuradun egon zirela kontuan hartuta.

### C. Indarreko politika sektorialak

#### 1. Laguntza teknikoa

Nekazaritza-sektoreko porrota agerikoa denez, Elías Antonio Sacatorren zuzendaritzapeko ARENaren azken gobernuak oinarritzko aleen ekoizleei laguntzeko zenbait politika jarri zituen abian. Horrez gain, zenbait intsumo ere banatu zituen, elikagaien ekoizpena handitzeko asmoz.

5. eta 6. taulak aztertuz gero, gobernuaren informazioa kontuan hartuta, azken hiru uztotan ereindako azalera eta etekinak areagotu egin direla esan daiteke arto, babarrun eta arrozaren arloan, nahiz eta nekazaritza bertan behera utzi, intsumoak garestitu eta finantziatorik egon ez. Estatistika horiek Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioak egindako inkestetan daude oinarrituta. Dena dela, euren balioa oso zalantzarria da, bi alderdi nagusi gurutzatzen baditugu: azken urteotan kontsumitzaileentzako prezioek gora egin dutenez, 2007. eta 2008. urteen arteko gehikuntzak handienak izan dira —badirudi ekoizpenak berak ere gora egin duela—; eta, horrez gain, inportazioak ugalduta dira. Dena dela, merkataritza askerako itunak aztertzean jorratuko dugu gai hori.

## 5. Taula

### SALVADOR: UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPENA, AZALERA ETA ERRENDIMENDUA (2005-2006 ETA 2006-2007)

Produktua	Neurketa unitatea	2005/06	2006/07	Aldaketa (%)
<b>Artoa</b>				
Ekoizpena	Milaka QQ-tan	16,007.4	16,317.6	1.9
Azalera	Milaka Mz-tan	353.7	344.9	
Errendimendua	QQ x Mz	45.3	47.3	
<b>Babarrunak</b>				
Ekoizpena	Milaka QQ-tan	1,432.4	1,992.0	39.1
Azalera	Milaka Mz-tan	122.4	124.9	
Errendimendua	QQ x Mz	11.7	15.9	
<b>Arroza</b>				
Ekoizpena	Milaka QQ-tan	571.6	670.2	17.3
Azalera	Milaka Mz-tan	5.2	6.0	
Errendimendua	QQ x Mz	109.9	112.2	
<b>Artotxoa</b>				
Ekoizpena	Milaka QQ-tan	3,110.4	3,630.3	16.7
Azalera	Milaka Mz-tan	127.6	128.5	
Errendimendua	QQ x Mz	24.4	28.3	
<b>Azukre kanabera</b>				
Ekoizpena	Milaka QQ-tan	5148	5,605.4	8.9
Azalera	Milaka Mz-tan	106	106.0	
Errendimendua	QQ x Mz	48.6	52.9	

Iturria: Erreserba Banku Zentrala. Hirubilabetekaria (2007ko uztaila-iraila).

## 6. Taula

### OINARRIZKO ALEEN ARLOAN NEKAZARITZA URTEAN AURREIKUSITAKO EKOIZPENA (2007-2008)

#### Oinarrizko aleen arloan nekazaritza-urtean aurreikusitako ekoizpena (2007-2008) (Uztaldiaren arabera)

Produktua	Uzta	Azalera (Mz)	Errendimendua (QQ/Mz)	Ekoizpena (QQ)	Uzta irteerak
Artoa	Lehen ereinaldia (maiatza - ekaina)	275.430,0	52,4	14.436.852,0	Abuztua - abendua
	Bigarren ereinaldia (abuztua - iraila)	80.740,0	41,1	3.315.644,0	
	Hirugarren ereinaldia (aza.- ab.)	6.000,0	35,0	210.000,0	Otsaila
	<b>Gutzizko partziala</b>	<b>362.170,0</b>	<b>49,6</b>	<b>17.962.496,0</b>	
Babarrunak	Lehen ereinaldia (maiatza - ekaina)	23.079,0	13,7	315.087,0	Abuztua - iraila
	Bigarren ereinaldia (abuztua - iraila)	106.064,0	16,5	1.754.784,0	Azaroa - abendua
	Hirugarren ereinaldia (aza.- ab.)	2.000,0	15,0	30.000,0	Martxoa - apirila
	<b>Gutzizko partziala</b>	<b>131.143,0</b>	<b>16,0</b>	<b>2.099.871,0</b>	

ITURRIA: 2007-2008ko Asmoen Inkesta. DGEA-MAG.

## 7. Taula

### NEKAZARITZA URTEKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPENA (2007-2008)

#### Nekazaritza-urteko oinarrizko aleen ekoizpena (2007-2008) (Uztaldiaren arabera)

Produktua	Uzta	Azalera (MZ)	Erendimendua (QQ/MZ)	Ekoizpena (QQ)	Uzta interak
Basartoa	Lehen ereinaldia (maiatza - ekaina)	13.805,0	20,3	280.889,0	Iraila - urria
	Bigarren ereinaldia (abuztua - iraila)	121.195,0	30,0	3.634.291,0	Abendua - urtamila
	<b>Guztizko partziala</b>	<b>135.000,0</b>	<b>29,0</b>	<b>3.915.180,0</b>	
Arroza	Lehen ereinaldia (negua)	5.290,0	110,3	583.314,0	Iraila - abendua
	Bigarren ereinaldia (uda)	750	150,0	112.500,0	Apirila - maiatza
	<b>Guztizko partziala</b>	<b>6.040,0</b>	<b>115,2</b>	<b>695.814,0</b>	
<b>GUZTIRA</b>		<b>634.353,0</b>	<b>38,9</b>	<b>24.673.361,0</b>	

ITURRIA: 2007-2008ko Asmoen Inkesta. DGEA-MAG.

## 8. Taula

### OINARRIZKO ELIKAGAIEN OTZARAKO PRODUKTUEN PREZIOAK, LEHEN ETA GAUR EGUN

Produktua	Aurreko prezioa	Indarreko prezioa	Gehikuntza (%)
Artoa (libra)	0.16	0.22-0.25	56 %
Babarrunak (libra)	0.50	0.85-1.25	70% -150%
Arroza (libra)	0.35	0.52	48.5%
Artotxo (libra)	0.16	0.20-0.22	37.5%
Esnea (litroa)	0.70	1.10	57%
Azukrea (libra)	0.25	0.30	20%
Olio (litroa)	0.80	1.25	56%
Arrautzak (kartoia)	2.50	2.90-3.20	28%
Irin gogorra (QQ)	24-27	37-41	51%
Irin leuna (QQ)	23-26	35-39	52%
Irin leun-leuna (QQ)	24-26	36-40	53%

MAGek adierazitakoaren arabera, hurrengo 8. taulan agertzen da intsumoen arloan emandako laguntza. Erakunde horren esanetan, ongari eta hazietan 9,8 milioi dolarreko laguntza eman die 230.000 ekoizleri, eta, horren ondorioz, 2007-2008rako ofizializatutako gehikuntzak lortuko zituen emankortasunean zein ekoizpenean. Jakin badakigu sorta teknologikoak bazterrekoak direla, nekazariak 2006-2007ko nekazaritza-urtean izandako kostuen arabera ezartzen delako.

Horrela, bada, nekazarien erakundeetako zenbait liderrek emandako informazioa kontuan hartuta, arto-mantzana bat atenditzeko \$283 behar ziren, eta MAGek \$42,5 baino ez zituen inbertitu atenditutako mantzanako. Horrez gain, badakigu MAGeko laguntza-programak helburu politiko alderdikarietarako erabili dituztela eta ez nekazarien nekazaritzaren sustapenerako.

Gaur egungo gobernuak programa horri heldu dio berriro, eta logika berari eusten dio oraindik, laguntza partziala ematen dielako nekazarien benetako premiei. Orain arte, gainera, Nekazaritza Sailak aipatutako laguntza-politika bakarra da. Beraz, nekazariak bertan behera utzi dituzte berriro.

## 9. Taula

### ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNA SUSTATU NAHIAN, PRESIDENTETZAK HAZI HOBETUA ETA ONGARRIA BANATZEKO ABIAN JARRITAKO PROGRAMA

#### Elikaduraren subiranotasuna sustatu nahian, presidentetzak hazi hobetua eta ongarrria banatzeko abian jarritako programa

- Arto-hazia eta ongarrria eta babarrun-hazia ematea, elikaduraren subiranotasuna sustatzeko.
- Hobetutako hazi ematea, basar-toaren ekoizpena sendotzeko.
- Ekipoen, makinaren eta hobetutako bazka-haziaren bidez, abeltzaintzaren sektoreari laguntzea.
- Bigarren fasea Azken Uztarako Programakoa izan zen, neguko sarrerako irregularitasunak eragindako ondorioei aurre egitea eduki zuen helburu nagusi.

LEHEN FASEA (1. hiruhilekoa)		
Kontzeptua	Kostua (US\$)	Onurapeko mantzanak
Arto-hazia eta ongarrria	6.121.940,52	130.000
Arroz-hazia	125.760,00	4.000
<b>Guztizko partziala</b>	<b>6.247.700,52</b>	<b>134.000</b>
Arto-hazia eta ongarrria	2.040.200,00	40.000
Basarto-hazia	511.416,84	30.000
Bazka-hazia	244.500,00	16.000
Babarrun-hazia	742.421,53	10.000
<b>Guztizko partziala</b>	<b>3.538.538,37</b>	<b>96.000</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.786.238,89</b>	<b>230.000</b>


## 2. Salvadorko kafezaintzaren krisia eta eredu neoliberalala

1992-1993tik 2004-2005era, Salvadorko kafezaintzako ekoizpena %50 baino gehiago jaitsi da, lehengo 4,3 milioi kintalen aldean 2 milioi kintal baino gutxiago ekoitzi duelako aipatutako azken nekazaritza-urtean. Laurogeiko hamarkadan kafezaintza-politika txarto erabiltzeagatik eta neoliberalismoaren esparruan kafezaintza-politika sektoriala bertan behera uzteagatik gertatu da jaitsiera hori. Gainera, prezioak ere ikaragarri jaitsi ziren 2000. eta 2004. urteen artean. Hori dela eta, herrialdeak kalte ekonomiko handiak eduki ditu, 150.000 lanpostu galdu dira, sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoak desegituratu dira eta herrialdeak hainbeste behar dituen dibisak galdu dira.



## 1. Grafikoa

### KAFEZAINZAKO KRISIAREN TRENA



Horrez gain, kafezaintzarako ereindako eremuaren %13 galduenez, biodibertsitatea galdu da, eta herrialdeko ur-mantuetan ere eduki du eragina. Erdialdeko Amerikako eskualde osoan biztanleko lurpeko ur-erreserba gutxien duen herrialdea da Salvador.

### 3. Agro-negoioen ereduasustatu eta landa-garapenerako elikaduraren subiranotasunaren ereduaren ezarpena eragotzen duen lege-esparrua

ARENA alderdiko azken lau gobernuek administratutako eredu neoliberalaren epealdian nekazaritzaren zein abeltzaintzaren sektorerako onartutako jarduerak arautzen dituen lege-esparruak agronegozioen eredu garatzea eta nekazarien nekazaritza desegituratzea du helburu: tradizionala zein laurogeiko hamarkadan ezarritako nekazaritza-erlaketarako prozesuan sortutakoa. Izan ere, behin eta berriro desegituratu dute 1989an ARENA alderdiko lehen gobernuari iritsi zenetik.

Nekazarien aurkako lege-esparru neoliberalaren eratzeko prozesuan, nekazarien erakundeek borroka handiak izan dira nagusi, eurengan hain eragin kaltegarria eduki duten legeei aurre egin dietelako. Aldi berean, aurkako proposamenak ere aurkeztu dituzte, lehenengo eta behin nekazarien ekonomia eta elikaduraren segurtasunerako politika berreskuratzeko eta, bigarren, elikaduraren subiranotasunaren ereduaren ezarpena bilatzeko.

Hona hemen hiru ataletan banatutako legeen zerrenda: lehen taldean, Batzar Legegilean lehendik zeuden legeen proiektuak daude. Batzuk nekazarien erakundeek aurkeztu dituzte; eta beste batzuk, ARENA alderdiko gobernuek, agronegozioen proiektua sendotu nahian. Bigarren taldean, lehendik dauden arren, elikaduraren subiranotasunaren eredu bideratzeko erladatau behar diren legeak daude. Hirugarren taldean, ordea, lege-proiektuen ekimenak daude, eta Batzar Legegilean aurkeztu behar dira, elikaduraren subiranotasunaren eredu bideratzeko.

## LEGEAK ETA ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNAREN EREDUA

### A. BATZAR LEGEGILEAN ZEUDEN PROIEKTUAK

- I. Elikadura eta Nutrizioaren Subiranotasunari buruzko Legea.
- II. Abeltzaintza Berreskuratzeko Legea.
- III. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpena Sustatzeko Errentamenduari buruzko Legea.
- IV. Usurpatzaile eta Hustuketan Legezketasunari buruzko Legea.
- V. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizle Guztiak Finantzatzeko Larrialdi Fondoa.
- VI. Elikaduraren Segurtasuna Sendotzeko eta Agroindustria Nazionala Garatzeko Finantziario Fondo Berezia.
- VII. Kanaberazaintzarako Larrialdi Fondoa Sortzeko Legea.
- VIII. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleek nekazaritzako intsumoak eta beste batzuk eskuratzen dituztela bermatzeko lege berezia.
- IX. Elikaduraren segurtasunaren aldeko larrialdi nazionala.
- X. Estatuak nekazaritzari eta abeltzaintzari kalteak ordaintzeko eta kontuak argitzeko legea.
- XI. Nekazaritzako Kodea.

### B. ERALDATU BEHARREKO LEGEAK

- I. Nekazaritzako eta agrokimikako intsumoekin lotutako legeak, arauak eta kalitateak.
- II. Hazi Transgenikoei buruzko Legea.
- III. Ingurumenari buruzko Legea.
- IV. Ur zein erreserbei eta ureztaketari buruzko legeak.
- V. Nekazaritzako eta bankuko zorrak barkatzeko legeak.

### C. LEGE PROIEKTU BERRIAK

- I. Kefezaintzaren zorra – FICAFE.
  - II. Oinarrizko aleen prezioak arautzeko programak.
  - III. Zientzia eta Teknologia: CENTA.
  - IV. Antolakuntza sozial, ekoizpenaren integrazio, kreditu, merkaturaketa eta agroindustrializaziorako legeria.
  - V. Ekoizpena antolatzeke lege-proposamenaren esparruan, honako hauexekin duen lotura: INSAFOCOOP Legea, MAG eta Konstituzioko 221. artikulua.
  - VI. Estatuko dirulaguntzen politika.
  - VII. Nekazaritzaren eraldaketarako kontzeptu eta esparru berrien garapena, laurogeiko hamarkadako legea gainditzeko. Konstituzioko 105. eta 267. artikuluen berrazterketa, lurraren edukitzaren testuinguru berrian eta lurra berriro piltzeko moduen arabera, azken hogeitun urteak kontuan hartuta.
- Landa-langileen sindikalizazioa.

## II. SALVADORKO ELIKADURAREN AUTOASKITZA

Erdialdeko Amerikako eskualdeko balantza komertziala ez da positiboa, eta, orain, eskualdeak saltzen duena baino gehiago erosten die AEBei.

Estatistikek baieztatu egiten dute 2000. urtetik AEBetatik datozen inportazioak %12,24 igo direla Salvadorren; %26, Hondurasen; %27,5, NikarUran; eta %13,5, Dominikar Errepublikan. CAFTA-DR berretsi duten herrialde guztietan, AEBekin duten zorpeketa nazionala handitu da, eta, aldi berean, herrialde horretatik inportatutako ondasun, zerbitzu eta lehengaez bete dira bertako merkatu nazionalak.

### A. Merkataritza-balantzan eragindako ondorioak

Arlo komertzialean, Amerikako Estatu Batuekin Merkataritza Askerako Ituna (MAI) inposatu zuen Salvadorko gobernuak jendaurreko adierazpenetan ziurtatzen zuen MAIk esportazioak zabaldu eta dibertsifikatu egingo zituela, produktu etniko eta nostalgikoen esportazioak, batez ere. Agindu egin zieten Salvadorrek eta Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuek behar besteko aukerak edukiko zituztela, gaur egun araubide berezipean AEBetako merkatuan sartzen diren nekazaritzako eta abeltzaintzako zenbait produktutarako sarbide kontrolatua handitzeko.

Hurrengo taulan ikusten denez, herrialdeko balantza komertzialeko defizita are sakonagoa da itun hori onartu zenetik, eta, 2008an, 2.500 milioi dolarretik gorakoa izan da, hain zuzen ere. Inolako zalantzarik gabe, herrialdeko krisi ekonomikoaren adierazle larria da, eta, MAIren ondorioz, are larriagoa da oraindik.

## 10. Taula

### SALVADOR: 2006-2009ko MERKATARITZA BALANTZA (milioika US\$-tan)

KONTZEPTUA	2006	2007	2008	Mar-09
<b>II. FOB ESPORTAZIOAK</b>	<b>3.705</b>	<b>3.984</b>	<b>4.549</b>	<b>962</b>
Tradizionalak	263	259	335	105
Ez-tradizionalak	1.667	1.921	2.286	497
Makila	1.775	1.804	1.928	360
<b>II. CIF INPORTAZIOAK</b>	<b>7.662</b>	<b>8.711</b>	<b>9.754</b>	<b>1.763</b>
Kontsumo-ondasunak	2.426	2.821	2.974	646
Bitarteko ondasunak	2.877	3.289	4.157	644
Kapital-ondasunak	1.216	1.365	1.342	274
Makila	1.143	1.236	1.281	199
<b>III. BALANTZA KOMERTZIALA</b>	<b>-3.957</b>	<b>-4.727</b>	<b>-5.205</b>	<b>-801</b>

Iturria: Salvadorko Erreserba Banku Zentrala.

## 11. Taula

### INPORTAZIOEN PROPORZIOA ESPORTATUTAKO DOLAR BAKOITZEKO

LOTURA	2002	2003	2004	2005	2006	2007*
<b>A.- Inportazioak \$ / Esportazioak \$</b>	1,73	1,84	1,92	2,02	2,17	2,11
<b>B.- Inportazioak kg / Esportazioak kg</b>	3,58	3,89	3,64	3,63	3,27	3,23

Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

#### B. Salvadorko nekazaritzan eragindako ondorioak

MAIko negoziaketetako emaitzak are kaltegarriagoak izan ziren nekazarien nekazaritzarako, ez direlako desberdintasun teknologikoak eta alderdien ekoizpen-gaitasunen garapen-maila desberdinak kontuan hartzen. Eragin handienak nekazaritzako ekoizpenaren sektorean igartzen dira, baina, batez ere, oinarrizko aleen ekoizpenaren azpisektorean. Azpiadar hori lehentasunezkoa da nekazarien nekazaritzan eta biztanleen biziraupenean, lotura estu-estua duelako elikadurarekin segurtasun eta subiranotasunarekin.

MAIn, berariaz onartzen da arto zuria zein horia, arroza, babarrunak eta artotxa (basartoa) garrantzitsuak direla, “produktu sentikortzat” hartzen direlako. Diskurtsoan “produktu sentikortzat” hartu arren, sektorea ez da benetan babestu, beste interes batzuei eman dietelako lehentasuna: herrialdeko elikagai-inportatzaile handien interesak eta munduko nekazaritzako elikagaien merkatuan nagusi diren transnazional iparamerikarren interesak.

MAI indarrean sartu baino lehen, azpisektore horretan egiturazko egokitzapenerako politiken ondorioz sortutako eraginak antzematen ziren, lehen azaldu dugun bezala. Egoera hori, ordea, larriagotu egin da MAIren esparruan, AEBekin zein Mexiko eta Txilerekin.

Lur-azalera handien erabilera aldatu egin denez, eragin kaltegarriak izan ditu ekoizpen zein autoaskitzaren mailetan, inportazioekiko menpetasuna handitu egin da eta merkaturaketarako, agro-industrializaziorako zein lur-pilaketarako egitura oligopolikoa sustatu da. Testuinguru horretan, nekazaritzako intsumoen kostu handiak eta prozesaketa-enpresen aldeko aleen prezioko espekulazioa izan dira nagusi. Joera hori, gainera, indartu egin da, eta landa-inguruneko langabezia zein oinarrizko aleen inportazioak areagotu dira. Izan ere, 2000. urtetik gora egin badute ere, are gehiago handitu ziren MAI indarrean sartu zeneko urtean.

Esate baterako, 2005etik 2008ra, arto zuriaren inportazioak %57,3 hazi dira, Salvadorko lurraldeko 430.000 lur-mantzana (301.000 lur-hektarea) baino gehiago bertan behera utzita egon arren, politika neoliberalen ondorioz. Arroz prozesatuaren inportazioak %29 hazi dira ia-ia. Beraz, ekoizten duen arrozaren %70 baino gehiago inportatzen ari da, elikagai hori ekoizteko moduko lurrak eta beharrezko teknologia eduki arren. Berrito ere, babarrunen inportazioak 600.000 kintaleraino heldu dira ia-ia, 2008. urtean. Txerriak, esnekiak... Elikaduraren menpetasuna gero eta sakonagoa da, eta nekazarien ekonomian, nekazaritzako zein abeltzaintzako enpresa ertain zein handietan eta, nola ez, landa-inguruneko langileen artean dauka eragina.

## 12. Taula

### MUNDUKO LEKU GUZTIETATIK INPORTATUTAKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK KINTALETAN

SALVADOR							
PRODUKTUAK	2005	2006	2007	2008	2009ko mai	Gehikuntza edo murrizketa (qq) 2005-2008	Gehikuntza edo murrizketa (%)
<b>ARTO ZURIA</b>	1898435,74	2446739,820	3987955,030	3314685,510	1165107,160	1.416.249,77	57,30%
<b>ARTO HORIA</b>	8217121,49	10099368,39	8892313,64	8178011,29	2345116,7	-39.110,20	100,50%
<b>BABARRUNAK</b>	546.065,20	673413,04	470347,83	598130,43	145347,83	52.065,23	91,30%
<b>BASARTOA</b>	5527,92	21141,69	986,09	64242,22	4162,2	58.714,29	8,60%
<b>ARROZ azalduna</b>	1.871.295,25	1.827.027,56	1.571.510,46	1.545.562,88	862.022,62	-325.732,37	121,10%
<b>ARROZ prozesatua</b>	73.574,60	223.765,69	263.578,49	255.427,27	107.106,32	181.852,67	28,80%
<b>TXERRIKIA</b>	23923,53	28427,21	39931,97	46100,14	27744,09	22.176,61	51,90%
<b>BEHIKIA</b>	17211,85	16269,85	11958,98	11893,78	6890,84	-5.318,07	144,70%
<b>ESNEKIAK</b>	357611,49	430332,75	450204,6	471270,84	186504,84	113.659,35	75,90%
<b>Esne likidoa</b>	23835,45	40805,2	47081,97	44982,37	20788,27	21.146,92	53,00%
<b>Esne-hautsa</b>	12600,54	20907,17	9956,38	19263,89	8750,65	6.663,34	65,40%
<b>Jogurta</b>	16522,27	28095,32	23488,75	18491,11	5568,52	1.968,84	89,40%
<b>Gurina</b>	3740,91	3534,23	3178,06	3800,86	1199,75	59,95	98,40%
<b>Gaztak</b>	235767,55	268373,69	298027,9	313294,21	119285,22	77.526,66	75,30%
<b>Izozkiak</b>	34749,85	40433,28	41838,55	36235,67	17358,96	1.485,82	95,90%
<b>Beste produktu batzuk</b>	30394,91	28183,86	26632,98	35202,73	13553,48	4.807,82	86,30%
<b>HEGAZTI PRODUKTUAK</b>							
<b>Izterrak, hankak eta biak batera.</b>	3725,06	6555,67	4,88	89,87	0	-3.635,18	4144,70%

Oharra: Babarrunak dira hiruhileko aldizkarian agertzen diren inportazioak / kanpoko sektorea / inportazioen osaketa.

Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

Oinarrizko aleen prezioak ikaragarri igo dira MAI ezarri denetik. Nabaritasun enpirikoak diskurtso ofizialaren kontrakoa dio, MAI ezartzean lehia sortuko zela eta, horren ondorioz, prezioak jaitsiko zirela eta biztanle gehienek mesederako izango zela adierazi zuelako.

MAI oinarrizko aleen prezio handien arrazoi zuzena ez den arren, egiaztatu egiten da ezin diola egoera horri aurre egin, elikagai merkeen ustezko inportazioen bidez ere ez.

Berriro ere, datuek baieztatu egiten dute merkataritza irekitzean agrobussinesko transnazionalak baino ez direla irabazleak izan: aleak inportatzen dituzten enpresen talde txikia eta elikagaiak prozesatzen dituzten enpresak. Oinarrizko aleak ekoizten dituzten biztanleen talde handi bat, ordea, nekazaritzako gaur egungo egiturako eta merkataritza-politikako galtzaile argia da.

Horren ondorioz, merkataritza irekitzeko politikari jarraipena eman nahian, Salvadorren MAI ezarri zenetik, oinarrizko aleen azpisektorea ez da batere suspertu, eta, oraindik ere, jarduera hau biziraupen-sistema moduan garatzen duten nekazariak, ekoizle txikiak eta ekoizle ertainak dira galtzaile handiak, euren bizi-maila gutxienerako mailalara jaitsi da-eta.

### C. Ekoizpenerako dirulaguntza

Nekazaritzaren sektorea Salvadorko ekonomiaren sustatzaileetako omen zen, lanpostuak sortzen zituelako eta elikaduraren segurtasun nazionalerako hornikuntza eskaintzen zuelako. Orain, ordea, gero eta nekazari gutxiago daude, agronegozietako transnazionalen eta herrialdeko elikagai-enpresa inportatzaile handien aldean nekazariak bertan behera utzi eta lehia desleialpean jarri zituen eredu neoliberalaren ondorioz.

Horra hor Salvadorko nekazarien baldintzak. Oinarrizko aleei dagokienez, behintzat, Salvadorko lehiakide nagusiak diren nekazari estatubatuarrek, ordea, estatuko dirulaguntzak jasotzen dituzte. Arto-ekoizpenak bakarrik urteko US\$ 9 mila milioi jasotzen ditu gutxi gorabehera. Horrela, bada, munduko ekoizle handiena da gaur egun (munduko ekoizpenaren %41 eta 280 milioi tona metrikoko ekoizpena 2005. urtean), baita esportatzaile nagusia ere (munduko esportazio guztien %68, 2006. urtean).

AEBetan sortutako legearen arabera (Farm Security and Rural Investment Act), AEBetako nekazarietarako dirulaguntzak **6 mila eta 400** milioi dolar igo dira urtean. Dirulaguntza berri horri esker, nekazaritza iparramerikarrak ia-ia urteko **20 mila milioi** dolar jasotzen ditu dirulaguntzetan. Hartara, agerikoa da zeinen zentzugabea den MAI, gero eta handiagoa den zerga-arinketarako estrategiaren bidez desagertzeko zorian jartzen duelako gure nekazaritza.

Munduko Bankuko datuen arabera, nekazaritza estatubatuar batek 20 mila eta 803 dolarreko urteko dirulaguntza jasotzen du. Salvadorko ekoizle batek zenbateko hori jaso nahi balu, hamalau urtez lan egin beharko luke, 2007ko Diru-sarreraren eta Gastuen Inkestaren arabera gure herrialdean per capita diru-sarrera urteko mila eta 442 dolarrekoa dela kontuan hartuta.

Beste herrialde batzuek nekazaritzako elikagaigintzari nolako laguntza ematen dioten kontuan hartuta, ageri-agerikoa da garrantzi politikoa, soziala eta kulturala duela. Nekazaritzako eta harekin lotutako intsumo zein merkaturaketa industrietako enplegua %17koa da AEBetan.

Edozein herrialdetako nekazaritzako elikagaigintzaren sektoreko ekoizleen ongizate ekonomikoak lotura zuzena dauka nazioarteko merkatuetan lehiatzeko duten gaitasunarekin, eta, herrialde garatu guztietan, horrek zerikusi zuzena dauka bertako nekazariei laguntzeko eta babesteko programekin.

#### D. Enpleguan eta lan-eskubideetan eragindako ondorioak

Nekazaritzaren sektoreak hainbat lanpostu sortu ditzake, baina, inbertsioak eta esportazioak oso dinamikoak ez direnez, oso zaila izango da epe laburrean familientzako emaitza ukigarriak lortzea. Zenbait urtez, gobernuak makila aukeratu du lanpostuak sortzeko iturri moduan. Edonola ere, MAI ezarrita egon arren, gaur egun Salvadorrek ez dauka inolako abantaila eraginkorrik, elikaduraren segurtasunaren eta tokian tokiko makila-industriaren hedapen eutsia erdiesteko.

Gobernuko agintariek onartu egin dute makila porrota izan dela lanpostuak sortzeko orduan, enplegua handitu beharrean murriztu egin delako MAI indarrean sartu zenetik. Izan ere, lehendik zegoen makila ez da lehiakorra izan nazioarteko merkatuan, eta badirudi lehiakorra izateko asmoz ari dela birmoldatzen. Hori dela eta, MAIk makilaren jarduera babesik gabe utzi eta bere egoera larriagotu zuen. Bestetik, AEBetako gaur egungo krisi ekonomikoan, aurton gure makilaren esportazioak %14 baino gehiago jaitsi direnez, sektore honetako lanpostuen galera areagotu egin da.

Nekazaritzaren sektoreko lanpostuen galeraren eraginari dagokionez, oinarrizko aleen enplegu-sorrera dimentsionatuko dugu.

2007-2008ko uztan, 18 milioitik gora kintal arto ekoitzi ziren, eta, ekoizpen horren ondorioz, 218.586 lanpostu iraunkor sortu ziren. Guztira, 21,2 milioitik gora kintal arto zuri, babarrun eta arroz ekoiztean, guztira 257.873 lanpostu iraunkor sortu ziren landa-ingurunean. Beraz, egiaztatu egiten da oinarrizko aleak nekazaritzako enplegu-iturri nagusia direla; ondoren, kafea 60.000 lanpostu); eta, gero, azukre-kanabera.

### 13. Taula

## UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA KINTALETAN (2007-2008)

UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA	
KINTALETAN (2007-2008)	
<b>ARTO ZURIA</b>	<b>18.407,300</b>
<b>BABARRUNAK</b>	<b>2.184,700</b>
<b>ARROZA</b>	<b>693.900</b>
<b>BASARTOA</b>	<b>3.997,300</b>

Fuente: Elaboración propia en base a datos de la revista trimestral del BCR

### 14. Taula

## UZTAKO OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALEAN SORTUTAKO LANPOSTUAK KINTALETAN (2007-2008)

<b>ARTO ZURIA</b>	<b>218.586</b>
<b>BABARRUNAK</b>	<b>30.722</b>
<b>ARROZA</b>	<b>8.565</b>
<b>SORTUTAKO ENPLEGUAK GUZTIRA</b>	<b>257.873</b>

Oharra: kintal bat arto zuri ekoizteko, eguneko 3,04 soldata behar dira.

kintal bat babarrun ekoizteko, eguneko 3,6 soldata behar dira.

kintal bat arroz ekoizteko, eguneko 3,16 soldata behar dira.

Nekazaritzako enplegu-maila horiek apurka-apurka egin dute behera, ekoizleak ezin direlako lehiatu merkataritza askerako itunen babespean batez ere AEBetatik eta Mexikotik datozen dirulaguntzadun aleen inportazioekin. Artoari dagokionez, 2008an baino ez, 3.314.685,51 kintal arto zuri inportatu zirenez, ale horren inportazioak 1.416.249,77 qq gehitu ziren guztira (%57,3), 2005. urtean egindako inportazioen aldean. Horrez gain, Salvadorren askotan arto horia erabiltzen dute arto zuriaren ordeaz, eta, 2008an, 8.178.011,29 kintal arto hori inportatu ziren.

2008. urtean, guztira 11. 492,696 kintal arto zuri eta arto hori inportatu ziren, hau da, Salvadorren 2007-2008ko uztarako ekoiztutako artoaren %62,4.

Inportazio horiek enpleguan nolako eragina duten neurtzeko, hurrengo emaitzak izan zituen azterketa egin zen. Oinarrizko hiru produktuen ekoizpenean baino ez (artoa, babarrunak eta arroza), 54.230 lanpostu galdu ziren 2005. urtean, hiru produktu horien inportazioen ondorioz. 2008an, ordea, lanpostu-galera hori 70.000 lanpostu iraunkorretik gorakoa zen. Beraz, argi



eta garbi dago MAIk nekazaritzako enpresak eta lanpostuak suntsitzen dituela eta landa-inguruneko egiturazko arazo larri hori konpontzeko lanpostu-sorrerarako ahalmena oinarrizko aleen ekoizpenean bertan dagoela. Horiek horrela, 2008an inportatutako arto zuria, arroza eta babarrunak nazioan bertan ekoitzi izan balira, oinarrizko aleen nekazaritzak 327.877 lanpostu sortuko zituen eta ez 257.873 lanpostu iraunkor. Salvadorren ez dago urtebetean enplegua hainbeste areagotu dezakeen sektore ekonomikorik. Eragin hori, gainera, handiagoa izan liteke, inportatutako arto horiaren ordeztasun erabiliz gero, basartoaren inportazioa 8 milioitik gora kintalekoa da-eta.

Oinarrizko aleak inportatzean MAIk lanpostuen suntsipenean duen eragin kaltegarri hori handiagoa da, merkataritza aserako itunen esparruan AEBetatik eta Mexikotik datozen nekazaritza-ondasunen beste inportazio batzuk aztertuz gero. 2008an inportazio horiek gora egin bazuten ere, are gehiago igoko dira hurrengo hamabost urteetako zergarinketa-prozesu osoan zehar, harik eta gure nekazaritza eta abeltzaintza suntsitu arte.

### Cuadro 15. Taula

#### NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK INPORTATZEAGATIK GALDUTAKO LANPOSTUAK

NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK INPORTATZEAGATIK GALDUTAKO LANPOSTUAK	2005	2008	Gehikuntza
<b>ARTO ZURIA</b>	22.544	39.362	16.818
<b>BABARRUNAK</b>	7.679	8.411	732
<b>ARROZA</b>	24.007	22.231	-1776
<b>GALDUTAKO ENPLEGUAK GUZTIRA</b>	<b>54.230</b>	<b>70.004</b>	<b>15.774</b>

Oharra: kintal bat arto zuri ekoizteko, eguneko 3,04 soldata behar dira; kintal bat babarrun ekoizteko, eguneko 3,6 soldata behar dira; eta kintal bat arroz ekoizteko, eguneko 3,16 soldata behar dira.

## E. Salvadorrek sentikortzat hartutako produktuen arloan AEBetatik egindako inportazioak

Ondoren, AEBetatik nekazaritzako zein abeltzaintzako zenbait produktutan egindako inportazioen nondik norakoak azalduko ditugu, eta, amaitzeko, herrialdeko nekazarien nekazaritzak eta nekazaritza orokorrak nolako arazo larriei aurre egin behar dieten azalduko dugu. AEBetako nekazaritzako produktuak Salvadorko merkatura sartzeko orduan, zenbait iragaitza-epe eta mekanismo ezarri zituzten; esate baterako, Nekazaritzaren Babes Berezia, zerga-arinketa ez-linealak eta kuotak.

Nekazaritzaren Babes Berezia sentikortzat hartutako sektoreak babesteko erabiltzen da.

### 1) ARTO ZURIA


AEBei 35.000 Tm-ko kuota esleitu zieten (771.610 qq). Kuota horren urteko hazkuntza %2koa da. Kuota osatutakoan, Nazio Mesedetuenaren (NMF) muga-zerga ezartzen da, hau da, Salvadorrek munduko edozein herrialdetatik datozen inportazioei ezarritako zerga.

Kuotaren kopurutik, urtero, 15 urtez, 15.000 Tm Arto Zuria Merkaturatzeko Hitzarmeneko arauen eraginpean egongo dira. Hitzarmen hori, hain zuzen ere, arto-irinaren ekoizleek eta ale-ekoizleek sinatu dute.

2005etik 2008ra, inportazioak %25,2 igo ziren, hau da, 30,7 milioi dolar. Inportatutako kopuruari dagokionez, 44,9 milioi kilo (21.257 qq) igo zenez, %63,7 handitu zen 2008. urtean, aurreko urtekoaren aldean.

## 2. Grafikoa

### ARTO ZURIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA




Fuente: Elaboración propia en base a datos del Banco Central de Reserva.

## 2) ARTO HORIA

Arto horiari dagokionez, AEBei 367.500 Tm-ko kuota esleitu zieten (8.101.905 qq). Kuota horren urteko hazkuntza %5ekoa da. Hamabost urtez, kuotaren kopurutik, urtero, 100.000 tona metriko Basartoa Merkaturatzeko Hitzarmeneko arauen eraginpean egongo dira. Hitzarmen hori, hain zuzen ere, arto horiaren ordezeko hurbila den basartoa ezartzen da. 2008. urtean, arto horiaren inportazioak 60,5 milioi dolar igo ziren, 2005. urtearen aldean.

### 3. Grafikoa

#### ARTO HORIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera


## 3) ARROZA

Salvadorrek 62.220 Tm-ko kuota esleitu zuen (1.371.702 qq) azaldun arrozean. Kuota horren urteko hazkuntza %2koa da. Kontuan hartutako hamazortzi urteetan, kuotaren barruan dauden azaldun arrozaren inportazioak Azaldun Arroza Merkaturatzeko Hitzarmeneko arauen eraginpean egongo dira. Hitzarmen hori, hain zuzen ere, onura-emaileek eta ekoizleek sinatu dute.

Produktu horren inportazioak 1,4 milioi kilo jaitسي dira 2008an, 2005. urtearen aldean.

#### 4. Grafikoa

### AZALDUN ARROZAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA




Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

Urre-arrozari edo arroz prozesatuari dagokionez, 5.625 Tm-ko kuota esleitu zen (124.008 qq). Kuotatik kanpo, bi arroz-motetarako, muga-zerga arintzeko epealdia hamazortzi urtekoa da zerga-arinketa ez-linealean: 10 urteko grazia; 1/3ko zerga-arinketa, 4 urtean; eta azken 2/3ak, 4 urtean.

Ituna ezarri zenetik, arroz prozesatuaren inportazioa 8,5 milioi kilo handitu zen 2008an, 2005. urtearen aldean, hau da, 4.018 qq gehitu zen.

#### 5. Grafikoa

### ARROZ PROZESATUAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

Nekazaritzaren Babes Berezia arrozaren arloan jarriko da abian, inportazioak kuotaren kopurua baino %10 handiagoak direnean. Ezarpenaren lehen hamar urteetan, ordea, ez da ezarriko, grazia-epealdia delako. 1. urtetik 14. urtera, Nazio Mesedetuenaren oinarritzko muga-zerga (NMF) ezarriko litzateke; 15. urtetik 16. urtera, ezarritako muga-zergaren eta oinarritzko muga-zergaren arteko aldearen %75; eta, 17. urtean, ezarritako muga-zergaren eta oinarritzko muga-zergaren arteko aldearen %50.

#### 4) TXERRIKIA


Salvadorrek 1.500 Tm-ko kuota esleitu zuen txerrikiaren inportazioan, eta, euretatik, 750 Tm ekoizleen eta industrialariet Merkatutzeko sinatutako Hitzarmenean zehaztutako betekizunen arabera arautuko dira. Kuotaren hazkuntza %10ekoa da.

Kuotatik kanpoko inportazioetarako, muga-zerga arintzeko epealdia hamabost urtekoa da, eta zerga-arinketa ez-lineala da. Beraz, sei urteko grazia-epealdia dago, eta, bertan, ez da muga-zerga arinduko. Hurrengo bost urteetan, ordea, muga-zergaren %40 arinduko da; eta, epealdiaren amaieran, muga-zergaren %60.

Produktu honen inportazioak 262.653 dolar jaitsi dira 2008an, 2005. urtearen aldean, hau da, 2.584 qq, hurrengo grafikoan ikusten denez.

### 6. Grafikoa

#### TXERRIKIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

## 5) BEHIKIA


Haragien Erdialdeko Amerikako merkatuak oso-oso gustuko ditu haragi freskoak, eta eskari hori herrialde bakoitzeko edo eskualdeko beste herrialde batzuetako ekoizpen nazionalaren bidez hornitzen da. Salvadorren, esaterako, inportazio gehienak NikarUratik datoz. Nolanahi ere, jatetxe eta hoteletarako ebaki finak ere inportatzen dira Salvadorren. Horrelako ebaki finetan, Salvadorko hornitzaile nagusia AEB direnez, MAI indarrean sartzean produktu horietan ez zen inportazioagatiko muga-zergarik ezarri. Gainerako ebakietarako, muga-zergak hamabost urtean arinduko dira.

Salvadorrek eta AEBek 105 Tm-ko kuota esleitzen dute esportazioetarako. Urteko hazkuntza soila %5ekoa da; zerga arintzeko epealdia, 15 urtekoa; eta grazia-epealdia, 3 urtekoa.

MAI indarrean sartu zenetik, gehikuntza handiena 2005. urtean gertatu da batez ere, 7.128 kilo inportatu zirelako, 26.837 dolar, alegia. Horren ostean, 2006ko eta 2008ko inportazioak baino ez dira agertzen, baina ez dira oso adierazgarriak.

## 7. Grafikoa

### BEHIKIAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.


## 6) ESNEKIAK

- Muga-zerga arintzeko epealdia: hogei urtekoa.
- Zerga-arinketarako grazia-epealdia: hamar urtekoa. Bertan, ez da zerga-arinketarik egongo.
- Kuotaren hasierako maila: 1.070 Tm, honelaxe banatuta:

	Toneladas Métricas (TM)
<b>Leche Fluída</b>	10
<b>Leche en Polvo</b>	300
<b>Yogur</b>	10
<b>Mantequilla</b>	100
<b>Queso y Requesón</b>	410
<b>Helados</b>	120
<b>Otros Productos</b>	120
<b>Total</b>	<b>1070</b>

## 8. Grafikoa


### ESNE HAUTSAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Bertan egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

## 9. Grafikoa


### JOGURTAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

## 10. Grafikoa

### GURINAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA




Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.



## 11. Grafikoa


### GAZTEN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

## 12. Grafikoa


### IZOZKIEN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

### 13. Grafikoa

#### BESTE ESNEKI BATZUEN INPORTAZIOEN BILAKAERA




Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

#### 7) HEGAZTIETAKO PRODUKTUAK

- Muga-zerga arintzeko epealdia: 18 urtekoa.
- Zerga-arinketarako grazia-epealdia: 10 urtekoa.
- Muga-zerga arintzeko modua: 11. urtetik 14. urtera, muga-zergaren 1/3 arinduko da; eta, azken lau urteetan, gainerako 2/3ak.
- Salvadorren, kuota itunaren indarraldiko hirugarren urtean hasiko da, eta kopurua 464 Tm-koa izango da. 12. urtean, kuota 4.638 Tm-ra iritsiko da. 13. urtetik 18. urtera, kuota ekoizpen nazionalaren %5ekoa izango litzatekeenez, kuotaren ondorioz merkaturia itotzen ez dela bermatuko da.
- Babesa ezartzeko epealdia: 18 urtekoa. 11. urtean hasiko da. Inportazioak urte horretako oilasko-kuotaren kopurura gehi %30era iristen direnean jarriko da abian.

## 14. Grafikoa

### OILASKOAREN INPORTAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Berton egina, Erreserba Banku Zentraleko datuen arabera.

### III. SOLDATA ARLOKO TXIROTASUNA, LANDA HEZKUNTZA ETA EMAKUMEEN BAZTERKETA

#### A. Landa-soldatak

Eredu neoliberalean, soldata txikiak ordaintzen dira, gizarte-maila menderatzailea aberastu dadin. Salvadorren kasuan, eredu hori are oldarkorragoa da nekazaritzako eta landa-inguruneke langileekin. 16. taulan ikusten denez, kafearen eta azukre-kanaberaren uztak biltzen lan egiten dutenen legezko gutxieneke soldatak ez dira 1995. urteaz geroztik aldatu.

Denboraldiko industriako langileentzako soldata nominala, hau da, kafearen, azukre-kanaberaren eta kotoiaren arloan lan egiten dutenentzako soldata nominala 1998. urteaz geroztik dago izoztuta. Lan-sektore horietan, eredu neoliberalesko ustipae-maila handienak ematen dira, eta langile gehienak landa-ingurunekeoak dira. Horrez gain, lan-merkatu horietan ohikoa da umeak esplotatzea. Kanaberaren arloan, esaterako, 10 eta 17 urte arteko neska-mutilek lan egiten dute.

1. grafikoan adierazten denez, landa-sektoreko lan-indarrak jasotako soldatak txarrera egin du 1998. urteaz geroztik. Horrela, bada, nekazaritzako soldata nominal orokorrak ondasunak eta zerbitzuak erosteko ahalmena galtzen du urterik urte, nekazaritzako soldatan lantzean behin ematen diren gehikuntzen kopuru osoa Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPIren) gehikuntza baino txikiagoa delako beti. 1998. urtean, nekazaritzako soldata nominala hileko 74,1 dolarrekoa zen, baina 2008an hileko 85,8 dolarreraino igo zen. Beraz, 11,7 dolar igo zen 10 urtean. Soldata horri ondasun eta zerbitzuen prezioen aldaketa ezartzean, hau da, KPIren arabera deflaktatzean, 1990. urtea oinarritzat hartuta argi eta garbi dago 1998ko 74,1 dolarreko erosketa-ahalmenak 47,8 dolarreko erosketa-ahalmena baino ez zuela: ondasun eta zerbitzu gutxiago.

Azterketa hori 2008. urtera arte eramanen gero, agerikoa da urte horretako soldata 85,8 dolarrekoa zela. Beraz, erosketa-ahalmenari dagokionez, 8,8 dolar murriztu zen 1998ko soldataren aldean. Benetako terminoetan, argi dago soldatak %18,5 jaitsi zirela 1998tik 2008ra. Uztako eta agroindustriako soldatak aztertuz gero, beherakada hori are txarragoa da, ez direlako ezertxo ere handitu aztertutako epealdian. Beraz, denboraldiko nekazaritzako, abeltzaintzako eta agroindustriako soldata-politikaren helburua langileak are gehiago esplotatzea izan denez, agerikoa da zergatik larriagotu den txirotasuna ekonomiako sektore honetan.

## 16. Taula


### INDARREKO GUTXIENEN SOLDATEN TARIFAK

Dekretu betearazlea	Jarduera-adarra	Tarifa (dolarretan)	
		Soldata	Soldata
<b>Zk.</b>	eta azpitaldeak	Egunekoa	Hilekoa
<b>47. zk.</b>	Nekazaritzako eta abeltzaintzako langileak	\$2,47	\$74,10
<b>1998ko apirilak 22</b>			
<b>68. zk.</b>	<b>Uzten bilketa</b>		
<b>1995eko uztailak 21</b>	Kafea	\$2,70	\$81,00
	Azukre-kanabera	\$2,29	\$68,70
	Kotoia	\$2,06	\$61,80
<b>46. zk.</b>	Denboraldiko nekazaritza-industria		
<b>1998ko apirilak 22</b>	Kafea	\$3,57	\$107,10
	Azukrea	\$2,61	\$78,30
	Kotoia	\$2,61	\$78,30
<b>37. zk.</b>	Merkataritza eta zerbitzuak		
<b>2003ko maiatzak 22</b>	Industria	\$5,16	\$154,80
	Oihalgintzako makila eta joskintza	\$5,04	\$151,20
<b>2006ko uzt.</b>	Merkataritza eta zerbitzuak	\$5,81	\$174,24
	Industria	\$5,70	\$170,20
	Oihalgintzako makila eta joskintza	\$5,24	\$157,4
	Nekazaritza	\$2,70	\$81,46
<b>2007ko aza.</b>	Merkataritza eta zerbitzuak	\$6,10	\$182,95
	Industria	\$5,96	\$178,70
	Oihalgintzako makila eta joskintza	\$5,40	\$161,97
	Nekazaritza	\$2,85	\$85,59

Iturria: Berton egina, Lan Ministerioko datuen arabera.

## 15. Grafikoa

### NEKAZARITZAKO SOLDATA NOMINALA ETA BENETAKOAK



Iturria: Berton egina, DIGESTY Ceko datuen arabera.

## B. Lan-egoera

Lehenengo eta behin, lan-merkatuaren egitura ageri-agerikoa da okupazio eta desokupazio mailen arteko aldeei erreparatuz gero. Hartara, 2007. urtean, ekonomiaren aldetik aktiboak diren biztanle guztietatik (EAB), hau da, 2.917.731 lagunetatik, 938.837k baino ez zuten lanpostu iraunkorra, soldata finko edo egonkorraren bermea, alegia. Hori dela eta, lan egiteko adina duten 100 lagunetatik 32k baino ez zuten lanpostu iraunkorra nazio-mailan.

Lan-merkatu horren beste aurkiari begiratzuz gero, langabezia eta azpilana EABren %77,3koak ziren 2007. urtean. 2007an, hain zuzen ere, 1.978.894 lagun egon ziren langabezian edo azpilanean. Beraz, 2006ko eta 2007ko zenbakiak kontuan hartuta, langabetuen eta azpilanean dihardutenen kopuruak gora egin du, 192.929 lagun gehiago daudelako egoera horretan. Egiturazko arazo horren larritasuna argia da, eta areagotu egiten da, langabezia irekia (erabateko langabetuak) EABren %25,49koa delako eta tasa hori %7raino ere iristen ez den langabezia-tasa ofiziala baino 3,7 aldiz handiagoa delako. 2008an eta 2009an, baldintza horiek larriagotu egin dira, BPG %2,5 baino ez zelako hazi aipatutako lehen urtean eta -%3 jaitsi zelako 2009an, 2007an %4,7 hazi zela kontuan hartuta (2009ko egoera ekonomikoa eta 2010eko aurreikuspena, Salvadorko Erreserba Banku Zentrala, 2010eko otsailaren 22a).

Langabezia irekiaren indize hori munduko larrietakoa da, eta egiaztatu egiten du herrialdeak ez duela inolako garapen-aukerarik, egoera horri eusten dion bitartean. Aldi berean, gainera, biztanle gehienentzat gaindiezina den txirotasunaren gupil zoroa sustatzen du, neoliberalismoak eta ekoizpen-sistema kapitalistak bere horretan irauten duten bitartean.

Zergatik ote dago hainbesteko aldea gobernuak langabezia irekiaren inguruan egindako kalkuluen eta ikerketa honetan egindako kalkuluen artean? Metodologia berriak ez duelako lan egiteko adinean dauden biztanleen irizpidea kontuan hartzen. Horren ordez, lan bila dabiltzanen parametroa darabil, eta urteko inkesten arabera zehazten da.

Euren txirotasun-baldintzak kontuan hartuta, ageri-agerikoa da gure biztanleak oso goiz hasi behar direla lanean, ikasten ez badute zerbaitetan jardun behar dutelako. Edonola ere, biztanle guztientzako lanik ez dagoenez eta gehienek ikasteko aukerarik ez dutenez, lan egiteko adina duten biztanle asko langabezian daude. Horrela, bada, herrialdeko egiturazko langabezia mozorrotuta dago, biztanleen zati handi bat lan egiten dutenen lepotik bizi delako, ez-formaltasuna nagusi delako eta biztanleak sorten menpe bizi direlako.

Egoera horren azpian, gainera, biztanle lunpenproletarioak ezkututzen dira, eta honako hauexen oinarria dira: marak; krimen antolatua; bizirauteko delinkuentzia; emakume, gizon eta umeen prostituzioa; eta kalean bizi diren biztanle asko eta asko. Datuen arabera, 300.000tik gora neska-mutil eta adineko nora ezean dabilta etxerik gabe, baina bizilagun horiek ez dira langabeziaren estatistika ofizialetan agertzen, eta, kasuren batean inkesta egiten badiete, ezin dute esan lan bila dabilzanik. Horrez gain, biztanle horiek inkestetatik kanpo uzten dituzte.

Egoera hori ez litzateke inolaz ere harrigarria izan beharko, sistema kapitalistaren logikaren barruan ezaugarri horiek azaltzen direlako lan-merkaturako. Mekanismo horri esker, sektore zabalak daude desokupatuta edo azpienplegatuta, soldatak handiegiak izan ez daitezten. Egoera kontrakoa izango balitz, soberakina sortzen duen ahalmenaren kalterako izango litzateke, eta, horren ondorioz, ezin izango luke ezer metatu. Izan ere, bere irabazi-tasa gutxitu egingo litzateke desokupazio-maila txikiko lan-merkatu lehiakorrean.

Lan-merkatua sexuen arabera aztertuz gero, lan egiteko adin aktiboan dauden biztanle gehienak emakumeak dira. Hain zuzen ere, 18 eta 60 urte arteko 1.600.498 emakume daude, nazioko biztanle guztien %55, alegia.

Azpilana eta langabezia are larriagoak dira emakumeentzat gizonentzat baino. Lan egiteko adina duten emakume guztietatik, %77,27 langabezian daude edo azpilanean dabilta, egoera berean dauden gizonen ehuneko %56,3 denean. Langabezia irekiaren kategoriari dagokionez, emakumeena egiturazko arazo larriena da, euren tasa %41,9koa delako, gizonena %5,5 denean. Azpilanean, ordea, gizonen partaidetza handiagoa da.

Zenbakien arabera, 1.236.712 emakumek ez dute lan iraunkorrik, eta, horietatik, 671 milatik gora erabat langabe daude; eta 565 mila baino gehiago, azpienplegatuta. Gainera, hemen erabilitako iturriaren arabera, 2007. urtean 490.385 familiatan emakumeak familia-buruak ziren, hau da, familia-gunearen biziraupena emakumeen ardurapean zegoen. Emakumeen okupazio-egoera gizonena baino larriagoa da, adin aktiboan dauden emakumeen %22,73k baino ez dituztelako lan iraunkorrik (363.786 emakume). Hori dela eta, gutxienez familia-buruak diren 378.920 emakume langabetuak edo azpienplegatuak dira, hau da, miseria gorrian bizi dira.

## 17. Taula

### LANGABEZIA ETA AZPILAN MAILA, SEXUAREN ARABERA

LANGABEZIA ETA AZPILAN MAILA, SEXUAREN ARABERA (2007)					
BIZTANLEAK GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
		2.719.371		3.024.742	
<b>Benetako EAB (18 eta 60 urte artekoa)</b>	<b>1/</b>	1.317.233	%100	1.600.498	%100
<b>Lanpostu iraunkorrak</b>	<b>2/</b>	575.051	%43,66	363.786	%22,73
<b>Azpilana</b>	<b>3/</b>	669.474	%50,82	565.652	%35,34
<b>Langabezia</b>	<b>4/</b>	72.708	%5,52	671.060	%41,93
<b>LANGABEZIA ETA AZPILANA GUZTIRA</b>		<b>742.182</b>	<b>%56,34</b>	<b>1.236.712</b>	<b>%77,27</b>

Iturria: Berton egina, Biztanleen VI. Erroldako datuak eta DIGESTYCeke 2007ko Helburu anitzeko Familientzako Inkestako datuak kontuan hartuta.

#### OHARRAK:

- 1 · Ekonomiari begira benetan aktiboak diren biztanleen artean, 18 eta 60 urte arteko bizilagunak daude. Informazioa: 2007ko Biztanleen VI. Errolda.
- 2 · 2007. urteko Familien Inkestaren arabera, enplegu iraunkorrak dira, gehi patronoak eta kooperatibistak. Informazio nahikorik ez zegoenez, 16 urtekoen eta hortik gorako enplegu iraunkorrak hartu ziren kontuan, Familien Inkestan azaltzen den bezala.
- 3 · Behar bezala ordainduta egon gabe jendeak egiten dituen jarduerak edo lanak dira azpilana edo kasuan kasuko soldata jaso gabe zehaztutako lanorduen gainetik lan egitea. Horrelako lanak informalak dira; eta, askotan, behin-behinekoak, hau da, ez dira enplegu iraunkorrak. Honako hauexek hartzen dira kontuan: norberaren konturako langileak, ordaindu gabeko senideak, aldi baterako soldatapekoak, ikastunak, etxeko zerbitzua eta beste batzuk.
- 4 · Langabezia lan egiteko adina dutenen, ken enplegu iraunkorrak, eta azpilangile guztien arteko aldea da.

## 18. Taula

### JARDUERA EKONOMIKOKO ADARRAREN, SEXUAREN ETA LANDA ARLOKO LAN KATEGORIAREN ARABERAKO OKUPATUAK


SEXUA	GUZTIRA	NEKAZARITZA. ABELTZAINTZA, EHIZA, BASOGINTZA	ARRANTZA	MEATEGIEN / HARROBIEN US-TIAPENA	MANUFATURAKO INDUSTRIA	ELEKTRIZITATE, GAS ETA UR HORNIKUNTZA	ERAIKUNTZA	MERKATARITZA HOTELAK / JATE-TXEAK	ETXEKO ZERBITZUA DUTEN FAMILIAK	BESTE BATZUK
	723.889	312.289	12.370	2.519	92.689	2.797	44.513	128.164	38.041	90.507
<b>GIZONAK</b>	492.087	281.046	10.215	2.493	45.937	2.436	44.367	43.661	3.601	58.331
<b>EMAKUMEAK</b>	231.802	31.243	2.155	26	46.752	361	146	84.503	34.440	32176

Iturria: Berton egina, DIGESTYCeke datuen arabera (2008).

Nabarmendu egin behar da etxeko zerbitzuan lan egiten dutenen %90 emakumeak direla eta gehienak landa-inguruneak direla. Izan ere, hirietara doaz arlo horretan lan egiteko eta euren familia aurrera ateratzeko. Dena dela, ez lukete halakorik egin beharko, nekazaritzan lan egiteko baliabideak eta laguntza edukiz gero.

Guztiok dakigunez, muturreko ezegonkortasun-baldintzetan garatzen dute lan-jarduera hori, ez direlako euren giza eta lan eskubideak errespetatzen:

- Etxeko emakume langileen soldatak lan-jarduerako gainerako sektoreetako batez besteko soldaten azpitik eta ezarritako gutxieneko soldataren azpitik daude.
- Horrez gain, indarreko arau-esparruaren barruan, euren lan-eskubideak “araubide berezietara” baztertzeko direnez, legezkoa da euren eskubideak etengabe eta behin eta berriro urratzea.



Landa-ingurune emakumeek zeresan handia dute euren erkidegoetako nekazaritzan eta ekonomian. FAOk emandako datu estatistikoaren arabera, mundu-mailan emakume horiek elikagaien %50 baino gehiago ekoizten dituzte, familiaren onurarako janariaren prestaketatik eta elikagaien ekoizpenetik datozen irabazi ez-monetarizatuak kontuan hartu gabe.

Zenbait azterlanen arabera, emakumeek gizonek baino %29 denbora gehiago lan egiten dute. Emakumeek nekazaritza-jarduera komertzialetan ere parte hartzen dute, gizonek ez beste zeregin batzuk garatzen dituzten arren. Gizonek lurra mugitzeko, erretzeko eta goldatzeko lanak egiten dituzte, eta emakumeak belarra kentzeko eta uztaren ostean garatu beharreko lanetan dira adituak. Dena dela, emakumeek eta gizonek ereintzan eta bilketan parte hartzen dute (Carmen Lahoz).

2008-2009ko Salvadorko Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera, Salvadorko biztanle gehienek lan-baldintzek ez dute lan duintzat hartuak izateko oinarritzko estandarrak bermatzen. Errealitate horren barruan, Salvadorko emakumeek baldintza txarrenak jasaten dituzte lan-ezegonkortasunari begira, ekoizpen-ekonomiaren sektorean nahiz ugalketa-ekonomiaren sektorean.




Eurentzat, euren lana onetsia ez izatea da lehen oztopoa. Garapen-bidean dauden herrialdeetako landa-guneetan, emakume guztiek, baita neskatilek eta adinekoek ere, euren ekarpena dute jarduera ekonomikoan, estatistiketan agertzen ez diren lanak egin ohi badituzte ere.

Sarritan, “ez dago batere agerian” emakumeek nolako lan handia garatzen duten elikaduraren subiranotasunean, inkestetan edo erroldetan erregistratzen ez delako. Izan ere, ordainpekoa edo gizabanako bakoitzaren jarduera nagusizat hartutakoa baino ez da lantzat hartzen. Beraz, baliteke emakumeek zer erantzun jakin gabe geratzea euren jarduera nagusia zein den galdetzean, egun bakar batean honako hau guztiau egin ondoren: nekazaritzan jardutea, animaliak zaintzea, arrantza egitea, egurra biltzea, ur bila joatea, nekazaritzako produktuak garraiatzea eta merkaturatzea eta seme-alabak zaintzea (Carmen Lahoz).

Onartu egiten dugu emakumeek zeregin nagusia betetzen dutela elikaduraren autoaskitzarako nekazaritzan eta emakumeek harreman berezia dutela lurrarekin, biziarekin eta haziekin. Gainera, hasiera-hasieratik, emakumeek zeresan handia izan dute eta gaur egun ere badute Nekazarien Bidearen eraketan. Gure mugimenduaren barruan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten ez badiogu, ez dugu geure borroketa aurrera egingo, eta, genero-harreman berririk eratzen ez badugu, ezin izango dugu gizarte berria eratu (Nekazarien Bidea, Maputo, 2008).

Era berean, ugalketaren bidez egindako ekarpen handia ere hartu behar dugu kontuan, gehienetan emakumeen ardurapean dagoelako.

- Salvadorko Giza Garapenari buruzko azken Txostenaren arabera, ugalketa-ekonomiaren sektorean ondasunen zein zerbitzuen arloan egiten den ekoizpenaren balio zenbatetsia BPGren %32koa da. Beraz, gutxi gorabehera, US\$5.436 milioikoa izan zen 2005. urtean.
- Ekoizpen-ekonomiaren sektoreko jarduera garrantzitsuenek urte horretan BPGn izandako ekarpena baino handiagoa da, hain zuzen ere.



Iturria: PNUDeK egina, honako hauexen informazioaren arabera: 2005eko BPG, BCR eta Ekonomia Ministerioa eta DIGESTYC, 2008.

## C. Bizi-kostua eta soldatak

Hurrengo taulan, argi eta garbi ikusten da nolako lan-baldintzak dituzten landa-ingurunean enplegua duten langileek. Bertan, hain zuzen ere, landa-arloko gutxieneko soldaten eta bizi-kostuaren arteko lotura ezartzen da. Lehenengo eta behin, landa-arloko hileko gutxieneko soldata \$97,20koa da, landa-arloko elikaduraren oinarrizko otzararen kostua \$99,05ekoa denean. Beraz, okupazio iraunkorreko kide bat duen familiak elikatzeko gaitasuna ere ez daukanez, miserian bizi direla esan daiteke. Txirotasun-egoera hori are larriagoa da, bizi-kostuari honako beste kostu hauek gehitzen dizkiogunean: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, garraioa, elektrizitatea eta telefonia. Beraz, bizi-kostuari hilean \$268,03 gehitu beharko genizkiokenez, biziraupen-kostua \$367,53koa izango litzateke, hau da, landa-arloko gutxieneko soldata baino lau aldiz handiagoa ia-ia.

Merkatuko otzararen kostuak batez besteko familiaren premia nagusiak estaltzen omen dituzenez, zentzuzko txirotasun-lerroa da. Kostu hori, hain zuzen ere, hileko 759,46 dolarrekoa izan zen 2008ko martxoan, hau da, landa-arloko gutxieneko zortzi soldatakoa izan zen ia-ia. Beraz, baieztatu egin daiteke enplegua edukitzeko zortea daukaten landa-arloko langile guztiak txirotasunean bizi direla.

### 19. Taula

#### OTZAREN KOSTUAREN ETA HILEKO GUTXIENENKO SOLDATEN ARTEKO LOTURA (2009ko ABENDUA)

Sektorea	Gutxieneko soldatak	Elikaduraren oinarrizko otzara	EOO kontsumituta gutxieneko soldatan sobera dagoena (\$)	Merkatuko otzara	Merkatuko otzara kontsumitzeko gutxieneko soldatan falta dena	Merkatuko otzararen kostuari aurre egiteko beharrezkoak diren gutxieneko soldatak
<b>HIRI ARLOA</b>						
<b>Merkataritza eta zerbitzuak</b>	\$207,68	\$162,27	\$45,41	\$759,46	\$ -551,78	3,6
<b>Industria</b>	\$203,10	\$162,27	\$40,83	\$759,46	\$ -556,36	3,7
<b>Ehung. Mak. eta Joskintza</b>	\$173,78	\$162,27	\$11,51	\$759,46	\$ -585,68	4,3
<b>LANDA ARLOA</b>						
<b>Nekazaritza eta abeltzaintzako langileak</b>	\$97,20	\$99,05	-\$2,30	\$759,46	\$ -662,26	7,8

Iturria: Bertan egina, DIGESTYCeke datuen arabera.

## D. Landa-txirotasuna

Ikusi dugunez, Salvadorko nekazaritzan ezarritako eredu neoliberalaren ondorioz, ondorio ezin kaltegarriagoak sortu dira herrialdeko landa-ingurunean. Izan ere, biztanleak ezin txiroagoak dira, minifundioek eta nekazariak porrot egitean, langabeziaren zein azpilanaren egoera hain larria izatean eta soldatak oso txikiak izatean. Egiturazko txirotasunaren egoera atzeraezina izango da, neoliberalismoa bertan behera uzteko moduko egiturazko aldaketa sakonak egiten ez badira.

19. taulan, landa-txirotasunaren egoeraren laburpena azaltzen da. Bertan erabilitako parametroaren arabera, merkatuko otzara estaltzeko beste diru-sarrerarik ez duten familietako biztanleak txirotasunaren eta miseriaren artean daude. Era berean, 2007. urtean, guztira 2,05 milioi lagun txirotasun-maila desberdinetan bizi ziren landa-ingurunean, hau da, landa-ingurunekeo biztanleen %96,6 txiroak ziren. Euretatik, 755 milatik gora lagun miserian zeuden; eta 734 mila, biziraupenean. Dena dela, txirotasun-maila horiek sakondu eta larriagotu egin dira krisiaren esparruan. Hori dela eta, 2009. urteko BPG -%3 jaitsi zen, eta urte bereko sortak ere 322,6 milioi dolar baino gehiago jaitsi ziren (2009ko Egoera Ekonomikoa eta 2010eko Aurreikuspenak, Salvadorko Erreserba Banku Zentrala, 2010eko otsailaren 22a). Beraz, txirotasuna ez ezik, miseria ere areagotu zen landa-ingurunean.

## 20. Taula

### LANDA ARLOKO TXIROTASUN MAILA (2007)

Txirotasun-mailak	2007		
	Familiak	%	Pertsonak
<b>Miserian</b>	184.274	%37,89	755.523
<b>Biziraupenean</b>	166.747	%34,28	735.354
<b>Erabateko txirotasuna</b>	465.136	%95,63	2.051.250
<b>Ez-txiroak</b>	21.237	%4,37	93.655
<b>GUZTIRA</b>	<b>486.373</b>	<b>%100,00</b>	<b>2.087.780</b>

Iturria: 2007ko EHPMko informazioaren arabera egina. DIGESTYC .

## E. Hezkuntza eta analfabetismo mailak

Alde nabariak daude hirietan eta landa-ingurunean bizi direnen artean. Hain zuzen ere, hiriguneko analfabetismoa %13,4koa da; eta landa-inguruneko, %28,4koa. Emakumeen eta gizonen analfabetismo-tasen artean dauden aldeak kontuan hartuta, agerikoa da landa-ingurunekeo emakumeen analfabetismo-mailak handiagoak direla, landa-ingurunean bizi diren hamar emakumetatik ia-ia hiru analfabetoak direlako. Hirian, ordea, bat baino ez da analfabetoa.

## 21. Taula

### NAZIOKO ANALFABETISMO MAILA (2007)

ADIN TALDEAK	HIRIKO BIZTANLEAK GUZTIRA	LANDA-INGURU-NEKO BIZTANLEAK GUZTIRA	% ANALFABETISMOA	
			HIRIAN	LANDA-INGURUNEAN
5 - 9 URTE	390.873	293.854	%32,61	%45,92
10 - 14 URTE	404.755	301.592	%3,36	%7,42
15 - 19 URTE	355.376	245.189	%3,26	%8,55
20 - 29 URTE	615.563	328.869	%5,17	%15,77
30 URTE ETA GEHIAGO	1.507.970	744.179	%16,76	%42,15
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.274.537</b>	<b>1.913.683</b>	<b>%13,35</b>	<b>%28,42</b>

Iturria: Berton egina, Biztanleen VI. Erroldako datuen arabera.

Haur-hezkuntza funtsezkoa da, haur-hezkuntza egin duten neska-mutilek adimen-garapen hobea lortzen dutelako eta oinarrizko zein erdi-mailako hezkuntzan errendimendu hobea dutelako. Hala ere, gaur egun, 5 eta 6 urte arteko neska-mutilen %41,44 ez dira haur-hezkuntzara joaten.

## 22. Taula

### NAZIOKO HEZKUNTZA FORMALERAKO ZENTROETAKO ASISTENTZIA 2007. URTEA

ADIN	BIZTANLEAK	HEZKUNTZA FORMALERA EZ DOAZEN BIZTANLEAK		HEZKUNTZA FORMALERA EZ DOAZEN GIZONEN %	HEZKUNTZA FORMALERA EZ DOAZEN EMAKUMEEN %
		PERTSONAK	%		
5 - 9 URTE	684.727	173.701	%25,37	%52,66	47,34%
10 - 14 URTE	706.347	99.255	%14,05	%50,62	49,38%
15 - 19 URTE	600.565	277.934	%46,28	%48,53	51,47%
20 - 29 URTE	944.432	824.273	%87,28	%45,95	54,05%
30 URTE ETA GEHIAGO	2.252.149	2.220.354	%98,59	%44,06	55,94%
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.188.220</b>	<b>3.595.517</b>	<b>%69,30</b>	<b>%45,44</b>	<b>54,56%</b>

Iturria: Berton egina, Biztanleen VI. Erroldako datuen arabera. 2007.

2007. urteko VII. Errolda Ekonomikoaren arabera, 5 urteko eta hortik gorako pertsonen %57,98k ez dute lehen edo oinarrizko hezkuntza baino handiagoa den ikasketa-mailarik. Hori dela eta, herrialdean nekez sortu daiteke eskulan prestatudun enplegurik, soldata txikien egiturazko arazoa konpontzen laguntzeko.

Nabarmendu egin behar da inoiz eskolara joan ez diren 920.922tik gora lagun daudela, oso garestia delako, eskola hurbilik ez dutelako edo lanean hasi egin behar izan direlako. Arazoa sortu duten arrazoi aipagarrien artean, 2006an Hezkuntza Ministerioak 200 ikastetxe pribaturi eman zien hileko 1 eta 40 dolar artekoa zen eskolaratze-kuota handitzeko baimena.

## 23. Taula

### 5 URTEKO BIZTANLEEK ETA HORTIK GORAKOEK SALVADORREN LORTUTAKO HEZKUNTZA MAILA 2007. URTEA

LORTUTAKO HEZKUNTZA MAILA	GUZTIRA		GIZONAK	Gutzizkoaren araberako ehunekoa	EMAKU- MEAK	Gutzizkoaren araberako ehunekoa
	PERTSONAK	%				
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.188.220</b>	<b>%100</b>	<b>2.436.099</b>	<b>%46,95</b>	<b>2.752.121</b>	<b>%53,05</b>
<b>EZ DIRA INOIZ JOAN</b>	920.922	%17,75	388.764	%42,21	532.158	%57,79
<b>HAUR HEZKUNTZA</b>	206.030	%3,97	104.599	%50,77	101.431	%49,23
<b>LEHEN EDO OINARRIZKO HEZKUNTZA</b>	3.007.955	%57,98	1.447.129	%48,11	1.560.826	%51,89
<b>HEZKUNTZA ERTAINA</b>	677.735	%13,06	317.297	%46,82	360.438	%53,18
<b>SEIGARREN MAILAREN OS- TEKO IKASKETA LABURRAK</b>	6.290	%0,12	1.730	%27,50	4.560	%72,50
<b>GOI MAILAKO HEZKUNTZA EZ UNIBERTSITA- RIOA</b>	62.740	%1,21	29.505	%47,03	33.235	%52,97
<b>TEKNIKARI UNI- BERTSITARIOA</b>	33.036	%0,64	15.721	%47,59	17.315	%52,41
<b>GOI MAILAKO HEZKUNTZA UNIBERTSITA- RIOA</b>	266.088	%5,13	126.933	%47,70	139.155	%52,30
<b>MAISUTZA</b>	6.794	%0,13	3.972	%58,46	2.822	%41,54
<b>DOKTORETZA</b>	630	%0,01	449	%71,27	181	%28,73

ITURRIA: Berton egina, VI. Errolda Ekonomikoko datuen arabera, 2007.

Gobernuak hezkuntzan inbertitzen ez duenez, erabakigarria da ekonomien garapenari begira. Egitate hori egiaztagarria da, zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa izan, orduan eta jakintza handiagoa duelako herrialdeak. Modu berean, bertako bizi-maila ere hobetu egin liteke, biztanleek enplegu duina eskuratzeko aukera izango luketelako eta oinarrizko premiei aurre egiteko besteko soldatak jaso ahal izango lituzketelako.

Landa-inguruneko hezkuntza-arazo larrienen artean, nabarmendu egin behar da 4 urtetik gorako biztanleen %68 ez doazela eskolara. Gertakari hori, gainera, are larriagoa da emakumeen artean, 23. taulan ikusten denez.

## 24. Taula

### 4 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK, LANDA ARLOKO ESKOLA ASISTENTZIAREN ARABERA

SEXUA	GUZTIRA	ESKOLA ASISTENTZIA			
		BAI	Gutzizkoaren araberako ehunekoa	EZ	Gutzizkoaren arabeko ehunekoa
	<b>1.985.769</b>	635.376	%32,0	1.350.393	%68,0
<b>GIZONAK</b>	<b>965.732</b>	322.680	%33,4	643.052	%66,6
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>1.020.037</b>	312.696	%30,7	707.341	%69,3

Iturria: Berton egina, DIGESTYCeke datuen arabera, 2008.

Gizonei dagokienez, batez ere ez dute ikasten lan egiten hasi behar direlako; eta, bigarrenez, adinik ez dutelako. Emakumei dagokienez, ordea, honako hauexek dira ez ikasteko hiru arrazoi nagusiak: interesik eza, adina eta etxeko zereginak.

## 25. Taula

### ZENBAIT ARRAZOIRENGATIK IKASTEN EZ DUTEN 4 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK (LANDA GUNEAN)

SEXUA	GUZTIRA	LAN EGIN BEHARRA	FAMILIA ARLOKO ARRAZOIAK	OSO GA-RESTIA	GAIXO EGO-TEAGATIK	GURASOEN EZ DUTE NAHI	ADINAGATIK	IKASKETAK AMAITU ZITUZTEN	EZ DAGO ESKOLA HURBILIK	INTERESIK EZA	ASKOK ERREPIKATU EGITEN DUTE	ETXEKO ZEREGINAK	BESTE BATZUK
	<b>1.350.393</b>	<b>363.162</b>	<b>117.646</b>	<b>132.263</b>	<b>18.529</b>	<b>36.770</b>	<b>234.775</b>	<b>4.444</b>	<b>29.951</b>	<b>263.730</b>	<b>2.664</b>	<b>119.584</b>	<b>26.875</b>
<b>GIZONAK</b>	643.052	280.244	7.480	65.371	7.861	18.445	101.876	1.749	15.158	129.100	1.138	1.149	13.481
<b>EMAKUMEAK</b>	707.341	82.918	110.166	66.892	10.668	18.325	132.899	2.695	14.793	134.630	1.526	118.435	13.394

Iturria: Berton egina, DIGESTYCeke datuen arabera, 2008.

Ikasketa-mailei dagokienez, landa-ingurune osoan, 565.604 lagunek baino ez dute oinarrizko ikasketetan hasi eta ikasketa unibertsitarioetan edo hezkuntza bereziko ikasketetan amaitzen den prozesua osatu. Beraz, guztira, 4 urtetik gorako 1,3 milioi lagunek ez dute hezkuntza formalik jaso.

## 26. Taula

### 5 URTEKO BIZTANLEAK ETA HORTIK GORAKOAK, GAINDITUTAKO IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA (LANDA GUNEAN)

SEXUA	GUZTIRA	GAINDITUTAKO IKASKETA MAILA				
		OINARRI-ZKOA	ERTAI-NA	GOI MAILAKO UNIBERTSITARIOA	GOI MAILAKO EZ UNIBERTSITARIOA	HEZKUNTZA BEREZIA
	<b>565.604</b>	<b>495.477</b>	<b>55.823</b>	<b>12.127</b>	<b>1.984</b>	<b>193</b>
<b>GIZONAK</b>	287.263	255.436	25.787	5.379	576	85
<b>EMAKU-MEAK</b>	278.341	240.041	30.036	6.748	1.408	108

Iturria: Berton egina, DIGESTY Ceko datuen arabera, 2008.

Landa-inguruneke emakumeen baldintzei dagokienez, hurrengo taularen arabera, Estatistika eta Errolda Zuzendaritza Nagusiak erregistratutako 246.086 ekoizleetatik, 31.985 baino ez dira emakumeak, batez ere gizonak direlako lurraren jabetza dutenak.

## 27. Taula

### NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZLEAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO JARDUERAREN ETA SEXUAREN ARABERA (LANDA GUNEAN)

SEXUA	GUZTIRA	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO JARDUERA						
		NEKAZARITZA	BASOGINTZA	ABELTZAINZAZA	NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAZA	ERLETZAINZAZA	ZEHAZTU GABE
	<b>246,086</b>	<b>162,609</b>	<b>549</b>	<b>13.643</b>	<b>540</b>	<b>67.810</b>	<b>179</b>	<b>756</b>
<b>GIZONAK</b>	214.101	148.992	514	4.870	440	58.514	179	592
<b>EMAKU-MEAK</b>	31.985	13.617	35	8.773	100	9.296	0	164

Iturria: Berton egina, DIGESTY Ceko datuen arabera, 2008.

Emakumeek lurraren jabetzarik ez dutenez, ondorio kaltegarriak sortzen dira, emakumeek ez dutelako eurentzako eta euren familiarentzako elikadura ona bermatzerik, gainerako ekoizpen-baliabideak eskuratzeko zailtasunak dituztelako, kredituak eskatzeko bermerik ez dutelako eta lan ezegonkorrak egin behar dituztelako. Euren artean, ordainpeko etxe-zerbitzuko lana.

#### IV. ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNA: SALVADORKO NEKAZARIEN ERAKUNDEEK PROPOSATUTAKO ESTRATEGIA ETA IKUSPEGIA

A. Elikaduraren subiranotasunaren kontzeptua, eskuratzeko moduko ekoizpen iraunkorraren ikuspegitik.

San Salvadorren egindako adierazpenaren arabera, nekazariarentzat elikaduraren subiranotasunak elikaduraren ekoizpenarekin du zerikusia, eta, horretarako, beste herrialde batzuetatik eta elikadurako transnazioaletatik askatu beharra dago.

*Hori dela eta, honako hauxe eskatzen dugu:*

*Herrialdeek ahalmena izan behar dute, euren nekazaritza eta elikadura arloko politikak garapenerako eta iraunkortasunerako helburuen arabera zehazteko. Beraz, etxeko merkatua babestu beharra dago nazioarteko merkatuan dunpinaren bidez merkeago saltzen diren soberako produktuetatik (ekoizpen-kostuen azpitik saltzea da dunpina egitea). Era berean, elikaduraren subiranotasunaren arabera, elikadura osasungarrirako zehaztutako arauak eta kalitateak betetzen dituzten elikagaien bidez elikatze eskubidea ere bermatu behar da. Kontzeptu horren arabera, nazio-mailako egiturazko langabeziaren arazoa konpondu beharra dago, eta behar den moduko soldata-politikak ezarri behar dira, biztanleen desnutrizioaren desagerpenerako elikadura eta familientzako oinarrizko zerbitzuen lorpena (osasuna, hezkuntza, etxebizitza...) bermatzeko.*

Kontzeptu berri horren ondorioz, MMEk gaur egun nekazaritzako merkatuetan abian jarritako antolakuntza hausten du, hain zuzen ere. FAOk zehaztutako eta elikagaien eskuragarritasunean oinarritutako elikaduraren segurtasunaren aldean, elikaduraren subiranotasunarentzat oso garrantzitsua da nola ekoizten diren elikagaiak eta nondik datozen.

Elikaduraren subiranotasunaren kontzeptuko jarraitzaileek nekazaritzako eta elikadurako politiken gobernantzarako esparrua proposatzen dute, eta honako gai hauek hartu behar dira kontuan: nekazaritzaren eraldaketa, lurraldearen kontrola, tokian tokiko merkatuak, biodibertsitatea, autonomia, lankidetzeta, zorra, osasuna, enplegu-politikak, soldata-politikak eta tokian-tokian elikagaiak ekoizteko gaitasunarekin eta biztanle nazional guztiek elikagaiok eskuratzeko eduki beharreko aukerarekin lotutako beste gai batzuk.

Politika horiek ekoizpenaren eta merkatuen kontrola lekuratzea dute helburu, baita honako hauxe sustatzea ere: elikadurarako eskubidea eta herriek lurra, ura, baliabide energetikoak eskuratzeko eta kontrolatzeko eta ingurumenari begira iraunkorra den ekoizpena sustatzeko eduki beharreko aukera:

1. Erdialdeko Amerikako gobernuetako instituzio guztiek (botere betearazleak, botere legegileak eta botere judizialak) erabaki politiko irmoa hartu behar dute, politika, arau eta legeen bidez nekazaritzaren egituran benetako aldaketak sustatzeko eta luraren eta gainerako ekoizpen-baliabideen eskurapena, edukitzea eta segurtasuna bermatzeko. Horretarako, elikaduraren subiranotasuna sendotu, ondare natural zein kulturalak babestu eta giza eskubideak bete behar dituzte.

2. Nekazaritzaren eraldaketa integrala bultzatu behar da, honako hauexetarako eskurapena eta segurtasun juridikoa bermatzeko: lurra, ura, basoa, biodibertsitatea, hazi kreolak, ekoizpeneko ondasunak eta baliabideak, laguntza teknikoa, berrikuntza teknologikoa, ikerketa, ureztaketa eta ekoizpenerako merkaturaketa eta finantziarioa, besteak beste. Horrez gain, nekazarien erakundeei eta erkidegoei irmotasunez lagundu behar zaie zerbitzu osagarrien bitartez, benetako landa-garapena ziurtatu ahal izateko: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, ekoizpen-azpiegitura eta beharrezko gainerako zerbitzuak.

3. Nekazaritzaren eraldaketa integralerako prozesu berriak elikaduraren subiranotasuna bermatu behar du. Horretarako, nekazariak bete-betean parte hartu behar dute bertan, eta Erdialdeko Amerikako biztanleek ekoizpenaren zein elikaduraren arloan dituzten eredu kulturalak errespetatu behar dira. Aldi berean, elikadurari eta medikuntzari begira ahalmena duten baliabide filogenetikoak ere babestu behar dira, patentatu ez ditzaten. Era berean, funtsezkoa da genetikoki aldatutako organismoak ezartzen eta hedatzen ez uztea.



4. Nekazaritzaren eraldaketa integralerako prozesuan, oso kontuan hartu behar da gizonen eta emakumeen lurra eta ekoizpen-baliabideak eskuratzeko aukera berberak izan behar dituztela. Gainera, familia nekazariari lagundu behar zaie gizarteratzen, eta bi sexuen artean dauden desberdintasunak murriztu behar dira. Horretarako, enplegua eta diru-sarrerak lortzeko aukera handiagoak eman behar dira. Halaber, kontuan hartu beharra dago lurra elikadura-helburuetarako ere erabili behar dela, nekazaritza eta abeltzaintzaren garapen integralerako estrategia antolatzen eta indartzeko gakoak da-eta.

5. Nekazaritzaren eraldaketarako prozesuaren bidez esleitutako lurra ezin izango da saldu, besterendu edo zatitu. Legez kontrako ekintzen erantzuleen aurkako legezko ekintzak jarri behar dira abian, eta pertsona naturalen eta/edo juridikoen esku dauden lurak berreskuratu behar dira lehenbailehen, legez kanpo eskuratu dituztenean.

6. Erdialdeko Amerikako gobernuari eskatzen diegu presa hidroelektrikoen eta atari zabaleko meategien eraikuntza ez abalatzeko, eragin handi-handia dutelako nekazarien artean.

7. Merkaturaketa-politikak ezarri behar dira, bidezko prezioa ziurtatzeko eta merkatu askearen gaur egungo ereduaren aurrean desabantailan dauden ekoizle txiki zein ertainak babesteko.

8. Hezkuntza-sistemak demokratizatu behar dira, hezkuntza formala eta ez-formala jasotzeko aukera bermatzeko. Horretarako, hezkuntza-mailen curriculumean hartu behar da kontuan landatartasun berria oso garrantzitsua dela belaunaldi berriak prestatzeko eta geure kultura erreskatatzeko orduan.

9. Defentsa-ministerioetako gastu militarrik murriztu eta baliabide horiek gizarte-ekintzetarako fondoetara bideratu behar dira.

10. Osasunerako eskurapen unibertsala bermatu behar da, nekazariak oso-oso baztertuta daudelako arlo horretan. Horretarako, osasun-sistema nazional unibertsalak sortu behar dira.

11. Egiturazko langabeziaren aurkako enplegu-politika garatu behar da, erabakigarria delako, herriek eta, oro har, familiek elikagaiak lortzeko aukera eduki dezaten.

12. Diru-sarrerak handitu behar dira, elikagaiak eskuratzeko moduko bidezko soldata-politika bermatu ahal izateko. Lehenengo eta behin, soldata-politika horren bitartez, gizonen eta emakumeen soldatak berdindu behar dira hiriguneetan, hau da, gutxieneko soldata bakarra egon behar da, eta merkataritzako, zerbitzuetako, industriako eta ehungintza-makilako langileak hartu behar dira kontuan. Bigarren, hiriguneko gutxieneko soldata eta landa-inguruneen soldata berdindu behar dira: agroindustriakoa nahiz gutxieneko landa-soldata orokorra. Hirugarren, gutxieneko soldatak oinarritzeko biziraupen-mailara eraman behar dira, honako hau guztiau estali dezaten: elikaduraren oinarritzeko otzara, etxebizitza, argia, ura, garraioa eta telefono-zerbitzua.

13. Alternatiba komertzialak bilatu behar dira, eta behar den moduko mekanismoak sustatu eta sortu egin behar dira, Erdialdeko Amerikako ekoizleen artean truke komertziala garatzeko. Era berean, hegoalderanzko bloke ekonomikoekiko negoziaketa sustatu behar da: ALBA (Ameriketako Alternatiba Bolivarra) eta MERCOSUR.

Proposatutako eskariak betetzen direla bermatzeko asmoz, Erdialdeko Amerikako nekazarien mugimenduak batasuna, beste sektore batzuekiko aliantzak eta borrokak sendotzen jarraituko du, elikaduraren subiranotasuna, nekazaritzaren eraldaketa integrala eta landa-garapena ezartzeko, bazterkeriari aurre egiteko eta txirotasuna desagerrarazteko.

Ekoizpenaren ikuspegitik, aurreko guztiaren ondorioz, Erdialdeko Amerikako Istmoko erkidego nekazariak eragin politikorako gaitasunak garatu behar dituzte, garapen ekonomikoaren inguruko ikuspegiaren ezarpenerako ingurune ekonomiko eta soziala lortzeko. Bertan, hain zuzen ere, nekazarien partaidetza estrategikoa izan behar da, nekazaritzako elikagaigintzako kateak eratu eta garatzeko orduan. Hartara, nekazariak soberakinak edo aberastasuna sortuko dituzte, horiez jabetzeko prozesuan funtsezkoak izango dira eta euren sektorea dinamikoa izan ahalko da:

1. Lurra, kreditua eta jakintza zientifikoa zein teknologikoa eskuratzeko gaitasuna eduki behar dute.
2. Bertako ekoizpena eta merkatuan elkarrekin eta banan-banan autokudeatzeko gaitasuna izan behar dute.
3. Baliabide naturalak artatzeko, babesteko eta garatzeko estrategia ezarri behar da.
4. Eskualdeak bere elikadura-plataforma eduki behar du, eskualdeko elikaduraren subiranotasunaren ikuspegipean.
5. Generoaren ikuspegia kontuan hartu behar da eragin eta partaidetzarako eremu guztietan.
6. Nazioarteko harreman ekonomikoen testuinguruan, gure ekonomia nekazariaren eta ekonomia garatuen arteko lehentasunezko tratu berezia eta asimetriak hartu behar dira kontuan.

Generoaren ikuspegitik lan egitea garrantzitsua dela berresteko, nabarmendu egin behar da gobernuari proposatzen diogula ekintzak sustatzeko orduan generoaren ikuspegia hartu behar dela kontuan. Horretarako, egoera txarragoan dauden eta, batez ere, emakumeen aldeko baieztapen-ekintzak garatu behar dira.

Era berean, oso garrantzizkoa da ulertzea generoaren ikuspegiak emakumeen eta gizonen artean duela eragina eta gizarte osoaren mesederako dela, oztupoak eta bereizkeriak apurtzen dituelako eta gizartearen erdiaren partaidetzarako baldintza berdintasunezkoagoak ezartzen dituelako.

Generoaren ikuspegiaren bitartez, indarreko politikak berrikusi behar dira, euren eragina bereizkeriazkoa edo baztertzaila den ala ez ikusteko eta gizonen zein emakumeen aukeren nahiz mugen inguruan dauden aurreiritziak eta usteak agerian jartzeko. "Neutralak" omen diren politikak ere arazotsuak izan daitezke, edo bereizkeriazko ondorioak sortu ditzakete. Hori dela eta, politiketan generoaren ikuspegia ziurtatu behar da, elikaduraren subiranotasuna bermatu ahal izateko.

B. Elikaduraren subiranotasunaren ereduaren ezarpenean aurrera egiteko asmoz, Salvadorko nekazarien erakundeek proposatutako estrategia, neurriak eta nekazaritza-politikak.

**1. Oinarrizko aleen inguruko subiranotasuna hurrengo 5 urteetarako helburua izan behar da** Lehenengo eta behin, eragin-gaitasuna garatu behar da, neoliberalismoan oinarritutako agronegozioen ereduaren ordeztatuak elikaduraren subiranotasunaren eredia ezarri dezan. 2009-2014ko epealdian, eredu horren helburu estrategikoa oinarrizko aleetako elikaduraren subiranotasuna lortzea izan behar da. Hori dela eta, nekazaritza-politikak artoaren, arrozaren,

babarrunen eta basartoaren ekoizpena suspertuko luke, harik eta autoaskitza nazionala lortu arte. Eskakizun hori egiten da, horretarako nekazariak, langileak eta lurak daudelako, hau da, ekoizpen zein merkaturaketarako beharrezkoak diren tresnak baino ez zaizkie eman behar ekoizle nazionalari. Era berean, produktu-kategoria horietan merkataritza askerako itunei esker abian jarritako duntina ere desegituratu behar da. Bestetik, nekazaritza-ekoizpenari eta landa-jabetza txiki eta ertainei pizgarriak eman behar zaizkie, ortuariak ekoitzi ditzaten.

Horrez gain, itun horiek berriro negoziatu behar dira, oinarrizko aldeak esleitutako esparru juridikotik ateratzeko eta estatuak ekoizpen-estrategia iraunkor bezain organikoa ezartzeko. Horretarako, honako ekintza hauek berehala ezartzea proposatzen da:

## **2. Intsumoetako dirulaguntzen politika**

### **a) Oinarrizko aleak**

Gobernagarritasunari eta ELIKADURAREN SUBIRANOTASUN NAZIONALARI eusteko berehalako ekintzak

Baterako inbertsio estatalerako ekintzak hartzen dira kontuan, elikaduraren subiranotasun eta gobernagarritasun nazionalak bermatzeko.

Ekintza horiek jarri behar dira abian, iraganean oinarrizko aleen nekazaritza-ekoizleei inolako laguntzarik eman ez zitelako, nahiz eta krisialdian biztanleak eta agroindustria nazionala sostengatu, azken horrek kuantifikatu ezin daitezkeen pribilegioak zituenean, estatuak eutsitako itxurazko negozio-hitzarmenen bitartez.

- Dirulaguntzetarako edo laguntza ez-monetarioetarako ekintza zuzenak jarri behar dira abian ekoizpen-jardueretan, lehen etapan nazioko biztanleentzako oinarrizko elikagaien ekoizpena herrialdean bertan sostengatzeko. Aldi berean, ekoizpen-guneak handiagotu behar dira, ekoizpen nazionala errentagarria den neurrian. Horrela, bada, inportazioak ordezkatzeko prozesu argiari eman ahal izango diogu hasiera.
- Hasierako estaldura 647.700 mantzanatarako da (453.390 hektarea), hau da, oinarrizko laboreak ekoizten dituzten biztanleen %100: artoa, arroza, hiriguneko zein landa-inguruneko oinarrizko otzarako babarrunak eta kontsumo industrialerako artotxoak. 2007-2008ko Erreserba Banku Zentralaren txostenaren arabera, atenditu beharreko guneak zenbatetsi dira (arretaz kontuan hartu beharreko datuak). Ortuari dagokienez, dirulaguntzen politika honelaxe banatutako 9.986 mantzanatarako eskatzen da (6.990 hektarea): txile gozoa, patata, buru-aza, angurria, tomatea eta juka.
- Intsumoen hornikuntza dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoan dago sartuta, ongarriei, pestizidei eta haziei dagokienez.
- Behar besteko ekintzak sortu behar dira, emakumek nekazaritzako ekoizpenean duten inplikazioa zuzenagoa izan dadin.
- Emakumeak kontuan hartzen dituen nekazaritza-eraldaketa jarri behar da abian.
- Honako programa hauek sortu behar dira: emakume nekazarietakoak, laguntza teknikorakoak, kreditu-lerroak eta dirulaguntza bereziak.
- Oinarrizko aleei dagokienez, dirulaguntzak urteko 169,5 milioi dolarrekoak dira guztira. Dirulaguntza eta laborantzakako guneak 1. taulan azaltzen dira.

## 28. Taula

### OINARRIZKO ALEETARAKO DIRULAGUNTZA, KREDITU ETA MERKATURAKETA POLITIKAK

		ARROZ TRADIZIONA- LA	NEGUKO BABARRU- NAK	MAIZ ERDI TEKNIFIKA- TUA	BASARTO ERDI TEKNI- FIKATUA	GUZTIRA	
<b>MANTZANEN KOPURUA</b>		6.000	135.200	371.100	135.400		
<b>HORNIKUNTZA KREDITUAREN ESKAERA (US\$)</b>	Intsumoen kos- tua Mz-ko \$	398	250	305	149		
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.386.200</b>	<b>33.853.877</b>	<b>113.148.390</b>	<b>20.174.600</b>	<b>169.563.067</b>	
	Dirulaguntza- peko kostuaren ehunekoa	0,35	0,39	0,41	0,38		
<b>EKOIZLEAK MERKATU- RAKETARAKO ESKATUTAKO KREDITUA (US\$)</b>	Eskulana eta uzta	453	277	281	134		
	Uztako erabilera mekanikoa	115		65	40		
	Zeharkako kostua	42	24	27	11		
	Lurraren alokai- ria eta/edo errentamendua	125	80	50	50		
	<b>ESKATUTAKO FINANTZIAZIOA GUZTIRA</b>		735	381	423	235	
			<b>4.411.080</b>	<b>51.459.824</b>	<b>156.953.034</b>	<b>31.839.310</b>	<b>244.663.248</b>
		0,65	0,60	0,57	0,61		
<b>IRAK ESKATU- TAKO KREDITU LERROA OINA- RRIZKO ALEAK MERKATURAT- ZEKO (US\$)</b>	Errendimendua Mz-ko	49,30 QQ/urrea	16,70 QQ	56,75 QQ	32,30 QQ		
	Kostua kintaleko	23	38	13	12		
	<b>GUZTIRA \$</b>	<b>1.134</b>	<b>635</b>	<b>738</b>	<b>388</b>		
<b>LINEA DE CRE- DITO REQUERIDA POR EL IRA PARA COMER- CIALIZACION GRANOS BASICOS (US\$)</b>	Ekoizpen nazio- nalaren kopurua qq	295.800	2.257.840	21.059.925	4.373.420	27.986.985	
	IRArenerosketa- kopurua, ekoiz- pen nazionalaren %25 qq	73.950	564.460	5.264.981	1.093.355		
	Gutxienero berme-prezioa \$ a)*	26	44	15	14		
	<b>Kreditu-lerroa guztira</b>	<b>1.955.978</b>	<b>24.666.902</b>	<b>78.711.470</b>	<b>15.088.299</b>	<b>120.422.648</b>	
<b>NEKAZARIAREN GUTXIENKO IRABAZIA Mz-ko (US\$)</b>		148	100	114	65		
<b>Handizkarien gutxienero prezioa 2009ko abuztuan (US\$)</b>		42	44	16	16		
<b>MERKATURAKETAKO MARJINA (US\$)</b>		16	0	1	2		
<b>GUZTIRA (US\$)</b>						<b>562.635.948</b>	

a) \* KOSTUA GUZTIRA gehi %15eko irabazia

ITURRIA: Berton egina. Intsumoen kostua kalkulatzeko, nekazaritza Ministerioko kostuen egitura erabili zen. Hori egokitzeko, gure erakundeetako nekazarien esperientzia zehatza hartu zuten kontuan, eta, horrez gain, intsumoen prezioa ere eguneratu egin zen.

• Termino erlatiboetan, honako hauxe izango litzateke estatuak uzta honetarako laborantza erdi teknifikatuetako ekoizpen-kostuetarako mantzanako emandako laguntza:

- Arto zuria : %41,89
- Babarrunak : %39,68
- Azaldun arroza : %35,10
- Artotxoa : %38,77

• Mantzanako intsumoen bolumenak eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioak argitaratutako 2006-2007ko ekoizpen-kostuak erreferentetzat hartu dira, kuantifikatutako datuak zenbatesteke orduan (NAMK adierazitako intsumoak ez dira egokiak laborantzearako). Bolumenari eta balioari begira, oinarrizko ale bakoitzerako mantzanako eskatutako intsumoen xehetasunak erantsi dira.

## b) Ortuariak

Dirulaguntzak jasotzeko orduan proposatzen diren sei ortuarietara dagokienez, 2. taulan ikusi dezakegu euren zenbatekoa urteko 10,2 milioi dolarrekoa izango litzatekeela. Laborantza bakoitzerako dirulaguntzen eskakizun monetarioak eta guneak ere aipatutako taula horretan bertan daude ikusgai.

## 29. Taula ORTUARIETARAKO DIRULAGUNTZA ETA HORNIKUNTZA KREDITUKO POLITIKA

		TXILE GOZOA	PATATA	BURUA AZA	ANGU- RRIA	TOMA- TEA	JUKA	GUZTIRA
<b>MANTZANEN KOPURUA</b>		650	800	1.100	3.950	1.386	2.100	9,986
<b>MANTZANAKO EKOIZPEN KOSTUA (US\$)</b>		3.785	2.628	2.207	1.058	4.824	633	
<b>DIRULA- GUNTZA/ INTSUMOAK (US\$)</b>	Intsumoen kostua Mz-ko \$	2.440	1.575	1.116	466	2.827	153	
	<b>GUZTIRA</b>	1.585.870	1.259.640	1.227.435	1.839.318	3.918.430	320.670	<b>10151,362</b>
<b>HORNIKUNT- ZA KREDI- TUAREN ESKAERA (US\$)</b>	Eskulana eta uzta	945	780	844	356	1.526	282	
	Uztako erabilera mekanikoa	48			116	72	69	
	Zeharkako kostua	229	157	129	61	287	47	
	Lurraren alokairua eta/edo errentamen- dua	124	117	117	60	112	82	
	<b>ESKA- TUTAKO FINAN- TZIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>Mant- za- nako</b>	1.345	1.053	1.091	593	1.997	480
<b>Kre- ditu- lerroa</b>		874.562	842.760	1.200.012	2.340.810	2.767.385	1.008.399	<b>9033,927</b>
<b>GUZTIRA (US\$)</b>								<b>19.185.290</b>

ITURRIA: Bertan egina. Intsumoen kostua kalkulatzeko, nekazaritza Ministerioko kostuen egitura erabili zen. Hori egokitzeko, gure erakundeetako nekazarien esperientzia zehatza hartu zuten kontuan, eta, horrez gain, intsumoen prezioa ere eguneratu egin zen.

Ortuariei dagokienez, estatuak dirulaguntzetan emandako babesean, ekoizpen-kostuen ehuneko hauek hartuko lirateke kontuan.

• Txile gozoa	: %64,45
• Patata	: %59,91
• Buru-aza	: %50,56
• Angurria	: %44,00
• Tomatea	: %58,61
• Juka	: %24,13

• Hemen proposatutako ortuari bakoitzerako, ekoizpen-kostu zehatzak erantsi dira, eta, bertan, dirulaguntzapeko intsumoen balioaren eta bolumenen xehetasunak ematen dira.

## 2. Kreditu-politika

Oinarrizko aleetako elikaduraren subiranotasuna lortzeko, ezinbestekoa da beharrezko finantziazioa edukitzea. Hartara, artoarekin, arrozarekin, babarrunekin eta basartoarekin lotutako elikadura-kate osoa garatu ahal izango da. Beraz, Estatuko Garapen Banka sortzea da elikaduraren subiranotasunaren ereduaren bigarren xede nagusia.

Helburu hori erdiesteko, nekazarien erakundeek lege-proiektua aurkeztuko dute Batzar Legegilean, eta aldarrikapen atzeraezin moduan negoziatuko dute gobernu zentralarekin. Sistema horren bitartez, modu berean finantzatuko dira nekazarien nekazaritza eta nekazariak ez direnen nekazaritza, hau da, honako produktu hauekin zerikusia duena: frutak, ortuariak, abere larriak eta xeheak, oinarrizko aleak, arrantza... Zehatz-mehatz egiaztatuta dago nekazaritza herrialdeko sistema finantzariotik kanpo dagoela, Erreserba Banku Zentralak emandako informazioaren arabera 2009ko abenduan nekazaritzak, abeltzaintzak, basogintzak eta arrantzak %3,8ko agerpena baino ez zutelako Sistema Finantzario Nazionaleko maileguren zorroan. Kanporaketa hori, ordea, are larriagoa da oinarrizko aleetan, baita nekazaritzan, arrantzan eta basogintzan ere. Hain zuzen ere, nekazaritzari, abeltzaintzari eta basogintzari emandako kreditu-saldoen 331,8 milioi dolarretatik, %75 baino gehiago daude kafeari eta azukre-kanaberari bakarrik esleituta (3. taula ikusi).

Proposamen honetan, zehatz-mehatz azaltzen dira oinarrizko ale eta ortuarietarako hornikuntza-kredituko politikak. Era berean, oinarrizko aleak merkaturatzeko kreditu-politika ere hartzen da kontuan. Kafeari dagokionez, kafezainen likidezia-faltaren arazoari aurre egin nahian, fideikomisoan oinarritutako berfinantziatorako politika proposatzen da.

### 30.Taula

## BESTE GORDAILU SOZIETATE BATZUEK SEKTORE PRIVATUARI EGINDAKO MAILEGUAK, HELMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA

PRESTAMOS DE LAS OTRAS SOCIEDADES DE DEPÓSITO AL SECTOR PRIVADO POR DESTINO ECONÓMICO EN MM/											
Saldos en miles de millones de colones											
Año/Mes	Consumo		Vivienda	Agricultura, ganadería silvicultura, caza y pesca	Industria		Comercio, restaurantes y hoteles	Servicios		Otros préstamos no clasificados	Total
	Tarjetas de crédito	Otros			Construcción	Otra		Transporte, almacenamiento y comunicaciones	Otros servicios		
	(1)	(2)			(3)	(4)		(5)	(6)		
01 Dic	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d	n.d
02 Dic	n.d	711.5	1,083.2	264.4	525.2	787.5	1,099.4	148.6	713.9	404.4	5,738.2
03 Dic	n.d	868.7	1,348.3	287.3	543.5	692.9	1,132.5	130.0	716.9	401.7	6,121.8
04 Dic	n.d	1,120.3	1,537.4	272.5	546.8	677.6	1,169.4	101.1	674.9	381.0	6,481.0
05 Dic	n.d	1,441.9	1,682.9	282.9	551.1	687.8	1,256.4	98.5	754.7	429.9	7,186.1
06 Dic	n.d	1,694.7	1,899.8	300.7	499.9	776.3	1,321.7	150.8	869.5	602.0	8,115.5
07 Dic	n.d	2,070.1	2,133.8	333.4	503.6	823.4	1,476.1	170.6	868.2	532.8	8,912.0
08 Ene	n.d	2,096.5	2,147.0	334.8	510.9	822.3	1,493.3	176.2	864.4	535.7	8,981.1
Feb	n.d	2,083.0	2,174.8	338.9	519.4	832.4	1,481.8	174.5	901.2	535.3	9,041.1
Mar	n.d	2,105.9	2,196.3	326.0	526.3	866.0	1,581.3	174.8	837.7	519.1	9,133.6
Abr	n.d	2,150.3	2,210.7	320.1	534.4	872.4	1,548.8	175.8	865.7	511.1	9,189.1
May	n.d	2,167.6	2,225.8	334.3	530.9	849.9	1,534.1	174.3	874.1	493.6	9,184.7
Jun	n.d	2,182.4	2,237.7	342.0	534.4	831.7	1,530.8	174.2	898.3	499.1	9,230.7
Jul	n.d	2,196.0	2,248.4	344.8	537.4	826.9	1,504.9	178.9	903.8	505.2	9,246.3
Ago	n.d	2,229.1	2,255.8	352.7	526.1	823.9	1,498.0	181.4	940.2	505.8	9,313.1
Sep	n.d	2,253.8	2,261.0	360.0	527.4	815.1	1,509.5	179.1	924.7	508.3	9,338.9
Oct	n.d	2,275.4	2,270.8	365.0	523.2	811.5	1,493.6	177.6	912.0	500.1	9,329.1
Nov	n.d	2,304.5	2,274.1	371.3	511.4	815.6	1,490.1	176.3	909.2	480.4	9,332.8
Dic	n.d	2,295.2	2,269.7	373.0	504.6	808.9	1,431.0	186.5	887.6	464.8	9,221.3
9 Ene	n.d	2,288.4	2,263.0	357.5	503.8	782.0	1,389.9	184.5	870.8	442.8	9,082.7
Feb	n.d	2,287.3	2,256.5	330.1	497.3	767.4	1,373.7	186.0	868.3	440.4	9,007.0
Mar	n.d	2,282.3	2,248.7	310.8	499.5	770.0	1,377.5	191.7	852.8	439.2	8,972.5
abr.	n.d	2,280.6	2,240.0	312.1	498.0	771.6	1,378.2	181.7	837.4	436.8	8,936.4
May	n.d	2,295.9	2,221.8	311.7	512.9	768.6	1,399.0	187.7	812.9	396.3	8,906.7
Jun	n.d	2,293.9	2,214.2	318.0	513.4	724.7	1,353.4	209.1	778.3	387.1	8,792.2
Jul	n.d	2,296.0	2,214.2	315.8	505.6	721.6	1,337.7	209.4	773.8	372.0	8,746.0
Ago	n.d	2,304.6	2,210.1	320.7	504.1	705.0	1,333.8	205.1	772.4	355.6	8,711.3
Sep	n.d	2,328.7	2,207.5	326.7	501.0	692.1	1,322.0	202.6	769.9	323.1	8,673.6
Oct	n.d	2,325.8	2,204.0	337.1	490.7	681.2	1,307.2	209.4	762.9	311.7	8,629.9
Nov	n.d	2,328.3	2,221.3	336.6	486.7	683.2	1,300.9	210.8	769.6	289.4	8,626.8
Dic	n.d	2,340.1	2,185.2	331.8	467.0	777.0	1,270.4	218.7	763.1	284.7	8,638.1

ITURRIA: Salvadorko Erreserba Banku Zentrala, web orria.

#### a) Oinarrizko ale eta ortuarietarako kreditu-politika.

i. Mantzanako ekoizpen-kostu guztia finantzatuko litzateke, eta dirulaguntzapeko intsumoen kostua kenduko litzateke.

ii. Urteko %4ko interes-tasa proposatzen da.

iii. Epea urtebetekoa izango litzateke gutxienez.

iv. Gehien jota, oinarrizko aleetarako kredituak martxoaren amaieran eman beharko dira, lurra alokatzeko, prestatzeko eta apirileko bigarren astetik ereintzarako prest egoteko. Ortuarietarako kredituak ereinaldiaren arabera eman beharko dira, oinarrizko aleetarako logika bera kontuan hartuta.

v. Ordainketak: bi ordainketa: %70, kreditua sinatzean; eta gainerako %30a, lehen ordainketatik hiru hilabetera.

vi. Uztaren gaineko bahi-kreditua.

vii. Oinarrizko aleetako hornikuntza-kredituko lerrorako fondoa, dirulaguntzapeko intsumoek kostuak kenduta, urteko 244,7 milioi dolarrekoa izango litzateke guztira. Hori dela eta, 647.700

mantzana finantzatuko lirateke (453.390 hektarea). Oinarrizko ale bakoitzerako finantziazioa zenbatekoa den jakiteko, 1. taula ikusi.

viii. Politika honen bidez atendituak izateko proposatutako sei ortuarietarako hornikuntza-kredituaren eskakizunari dagokionez, dirulaguntzapeko intsumoek kostuak kenduta, 9.033 mila dolarrekoa izango litzateke guztira. Sei ortuariak kontuan hartuta, bakoitzean zenbat finantzatu behar den jakiteko, 2. taula ikusi.

### **b) Ekoizleentzako kreditu-lerroa, oinarrizko aleetako ekoizleen merkaturaketarako.**

i. Kredituak ekoizpen-kostuen %100 estaliko luke.

ii. Merkaturaketa-kredituaren bidez, bankuak ekoizlearen hornikuntza-kreditua likidatuko luke, betiere ekoizleak finantziatorik jaso badu.

iii. Bahi-kreditua izango litzateke, urteko %4ko interes-tasara.

iv. Nekazariak bere ekoizpena pignoratu dezake, bere siloetan edo alokatutako siloetan biltegitratzen badu.

v. Kreditu-lerro honetarako fondoak 27.987 mila dolarrekoak dira guztira. 1. taula ikusi. Bertan, gainera, oinarrizko ale bakoitzerako zenbatekoak ere badaude ikusgai.

### **c) Kafezainen arazo finantzarioak konpontzeko eta kafezaintzaren berriztapena zein dibertsifikazioa finantzatzeko fideikomisoa.**

Kafe-parkea ondare eta baso-erreserba nazional izendatu eta babestu egin behar da. Era berean, politika eta programa zehatzak betearazi behar dira, sektoreari laguntzeko eta kafezain txikiei lehentasuna emateko.

Hona hemen herrialdearentzat estrategikoa den sektore hau finantzatzeko politikaren helburuak:

- 1) Zorpeketaren arazoa konpontzea.
- 2) Baliabide freskoen helduera sustatzea, kafezaintzaren sektorea kapitalizatzen.
- 3) Kafezaintzaren jarduera birbaloratzea.

Kafearen Foroaren proposamenari eutsita, CNTCko erakundeok etorkizuneko uztak titularizatzeko politika hartzen dugu oinarrizko lerrotzat. Horretarako, diru-obligazioen adierazgarri diren finantza-tresnak jaulkitzea proposatzen da, pentsio-fondoak bezala finantza-erakundeek, banka komertzialak, aseguru-konpainiek eta ekoizlek eurek erosi ditzaten, etorkizuneko kafe-uzten babespean. Finantza-baliabideak lortzea da helburua, zordunek gaur egungo hartzekodunei obligazioak ordaindu diezazkieten. Hartzekodunak, gainera, banka, estatuko erakundeak edo onuradunak eta/edo nekazaritzako elikagaien esportatzaileak izan daitezke.

Finantza-tresnen jaulkipen hori estatuko bankak bakarrik administratu beharko luke, eta Salvadorko Balore Burtsaren bitartez bideratu beharko litzateke.

Hurrengo bost urteotako kafe-uztan oinarritutako jaulkipena eginez gero, Amerikako Estatu Batuetako \$500 milioi dolar inguruko sortuko lirateke. Hain zuzen ere, zenbateko hori nahikoa izango litzateke, kafezaintzaren zor guztia finantzatzeko, eta 25 urterako fideikomiso



honen esparruan berfinantzatu beharko da urteko %4ko interesean. Bestetik, kafe-soroen berriztapena finantzatzeko litzateke, orduko 4tik gora milioi kintaleko ekoizpen-ahalmena berreskuratzeko. Berriztapen horretan, lehentasunezkoa izan behar da kafezaintza iraunkorra ezartzea, kafe organikoari lehentasuna ematea eta gourmet merkatuak atenditzea. Era berean, kafe-landarearen hornikuntza-kreditua finantzatzeko litzateke, baita kafezain txiki eta ertainen jabetzako prozesaketen ezarpena ere, produktuak prozesatu ditzaten eta euren ekoizpenaren esportatzaile zuzenak izan daitezten. Azkenik, kafe-basoa fruta espezieez eta espezie egurgarriez dibertsifikatzeko politika finantzatzeko litzateke, kafezaintza berriaren garapenarekin batera biziraun dezaten.

#### **d) Kreditu-lerroaren sorrera, agrokimikoen nekazaritzatik nekazaritza iraunkorrera egin beharreko iragaitza finantzatzeko.**

Kreditu-lerro honetako hasierako fondoa \$50 milioi dolarrekoa izan beharko litzateke; eta lehentasunezko interes-tasak, %2koak. Gainera, hornikuntza-kredituetarako epeak urtebetekoak izan beharko liriateke; eta 5 urtekoak, nekazaritza iraunkorrerako intsumoak ekoizten dituzten enpresak ezartzekoak. Horrez gain, estatuak dirulaguntzen politika ezarri behar du, horrelako nekazaritza abian jartzeko, betiko ekoizpenarekin batera lehiakortasuna emateko eta nekazaritza berri horren bidez nazioko zein nazioarteko merkatuetan sartzeko. Era berean, estatuak ziurtapen-programak ezarri behar ditu, kasuan kasuko nazioarteko erakundeekin koordinatuta.

### **3. Ekoizle nazionalen prezioak bermatzeko eta biztanleei oinarrizko elikagai merkeak hornitzeko politika.**

#### **a) Estatuko sarearen sorrera, oinarrizko aleak, nekazaritzako zein abeltzaintzako intsumoak eta familien elikaduraren oinarrizko otzara merkaturatzeko eta euren prezioak arautzeko.**

Hona hemen nekazarien txirotasunaren arazoietako bat: nekazaritzako zein abeltzaintzako intsumoen bitartekariak eta nekazaritzako ekoizpeneko koioteek nekazariari lapurtzen diete lana, prezioen manipulazioaren bidez. Hori dela eta, elikaduraren subiranotasunean oinarritutako nekazaritza berriaren estrategia ezartzeko orduan estrategikoa da estatuak ekoizpenerako intsumoak eta oinarrizko aleen ekoizpena bera merkaturatzeko arauketa-sarea sortzea. Sare horren zati bat elkarteetan antolatutako nekazarien esku egon daiteke, estatuko sarearekin osatzeko moduko bitartekaritza-sarea sortzeko aukera eduki dezaten. Horretarako, estatuak oinarrizko aleen merkaturaketarako politika ezarri behar du, ekoizleentzako gutxienezko prezioak eta kontsumitzaileentzako gehienezko prezioak zehazteko. Bestetik, estatua oinarrizko aleen ekoizpenerako beharrezkoak diren agrokimikoen eta lanabesen inportatzaile zuzena izan behar da, eta kostu-prezioan saldu behar dizkie ekoizleei, Estatuko Garapen Bankako kreditu-lerroen bitartez.

Gauza bera egin behar da merkaturaketan. Horretarako, Garapen Bankak merkaturaketarako kreditu-lerroak eduki behar ditu, ekoizleek euren ekoizpena pignoratu eta Garapen Bankari hornikuntza-kreditua ordaintzeko aukera izan dezaten. Agiri honetan bertan proposatu dugu politika hori.

Azkenik, merkaturatzeko eta prezioak arautzeko sare estatal horrek denda txikizkarien sarea garatuko luke landa-inguruneke ekoizle nekazariarekin eta hiriguneko dendari txikiekin. Bertan, hain zuzen ere, familiei zuzenean salduko lizkiekete oinarrizko aleak, azukrea, gantza eta familien oinarrizko otzarako beste produktu batzuk; esate baterako, olio, gantza, xaboa... Prezio horiek,

gainera, erosketako eta maneiuko kostuak baino ez lituzkete estaliko IRARI begira (Hornidurak Arautzeko Institutua). Hori dela eta, herrialdeko familien oinarrizko otzararen kostua zuzenean murriztuko litzateke, baita bizi-kostua bera ere, bitartekaritza espekulatibo guztia desagertuko litzatekeelako oinarrizko aleen merkaturaketan, intsumo zein lanabesen inportazioan eta merkaturaketan eta familiei banatzeko kateko azken zatiko bitartekaritzan.

Politika horren ondorioz, gobernuak honako ekintza hauek jarri behar ditu abian:

Oinarrizko aleetako ekoizleentzako gutxieneko berme-prezioen ezarpenari dagokionez:

- IRARENTZAT 120,4 MILIOI DOLARREKO KREDITU-LERROA SORTZEA, OINARRIZKO ALEEN MERKATURAKETARAKO POLITIKA EZARTZECO. 1. Taula ikusi.
- GUTXIENEZ, IRAK URTEKO EKOIZPEN NAZIONALAREN %25 EROSIKO LUKE, NEKAZARITZA-URTEKO UZTA NAGUSIA KONTUAN HARTUTA. Oinarrizko lau aleetarako erosketa-egutegia zehaztuko litzateke. 1. taula ikusi, oinarrizko ale bakoitzean zenbat kintal erosi behar diren azaltzen delako bertan.
- IRAK GUTXIENEKO BERME-PREZIOAK ZEHAZTUKO LITUZKE, ETA EKOIZPEN-KOSTUEN %100I EKOIZLEAREN %15EKO IRABAZIA GEHITUKO LIEKE. Hau da, berme-prezioa kintaleko ekoizpen-kostuen %115en baliokidea izango litzateke. Arrozari dagokionez, urrezko kintala izango litzateke. 1. taula ikusi, proposamen honetan erabilitako kostuetan oinarrizko ezarri beharreko gutxieneko berme-prezioak agertzen direlako bertan.
- NEKAZARITZAK IRARI SALDUKO BALIO, ERAKUNDE HORREK EKOIZLEARI LIKIDATZEN DIONEAN, LEHENENGO ETA BEHIN EKOIZLEARI MERKATURATZECO EMAN DION KREDITUA LIKIDATUKO LIOKE BANKUARI, ETA, ZUZENEAN, ALDEA ORDAINDUKO LIOKE EKOIZLEARI. IRAK GAUZA BERA EGINGO LUKE, EKOIZLEAK BERE HORNIKUNTZA-KREDITUA ORDAINDU GABE EDUKIKO BALU. EKOIZLEAK ORDAINDU GABEKO BAHI-KREDITURIK ETA HORNIKUNTZA-KREDITURIK EZ BADU, IRAK EROSKETA OSOKO EKOIZLEARI LIKIDATUKO DIO ZUZENEAN.

Ekoizleentzako berme-prezioen eta kontsumitzaileentzako gehienezko prezioen politika ezartzeko, honako politika hauen inguruko erabakiak hartu behar dira:

- GOBERNUAK IRA SUSPERTU BEHAR DU INDARREKO LEGEAREN ESPARRUAN, ETA LEGE HORI AZERTU ETA ALDATU EGIN BEHAR DA, HERRIALDEKO ERREALITATE EKONOMIKO BERRIA KONTUAN HARTUTA, BAINA BERE HELBURUEI EUTSITA.
- GOBERNUAK ALOKAIRUAN EMANDAKO BILTEGI-SILOAK BERRESKURATU ETA IRARI EMAN BEHAR DIZKIO, Ogasun Ministerioaren esku dauden IRAko hazitegiekin batera. Premiazko da silo horien egoerari buruzko azterketa juridikoa egitea.
- GOBERNUAK BATZAR LEGEGILEAK ONARTU BEHAR DUEN EZOHIKO AURREKONTUA ZEHAZTU BEHAR DU, IRA ABIAN JARTZECO AURREKONTU-SAILAK FINANTZATU AHAL IZATEKO ETA BILTEGIEN FUNTZIONAMENDURAKO BEHARREZKOAK DIREN MAKINAK ETA SILOAK BERRESKURATZEN HASTEKO.

- IRAk proposamena egin beharko du, familiei oinarrizko otzara erakundeak zehaztutako gehienezko prezioetan salduko dizkieten herri-denden sarea garatzeko.
- Gobernuak kreditu-lerroak sortu behar ditu, IRAk kaudimendun kreditu-lerroa eduki dezan eta, horren bidez, oinarrizko aleetako ekoizleari uzta erosi diezaion.
- Gobernuak behar besteko gaitasunak sortu behar ditu, herrialdeko ekoizle nekazariak behar dituzten agrokimikoak eta lanabesak zuzenean inportatzeko, eta Garapen Bankaren bitartez merkaturatu beharko dira. Horiek horrela, kreditu-politikaren barruan hartu ahal izango dira kontuan. Aipatu egin behar da herrialdean badutela arlo horretako esperientziarik eta arrakastatsua izan zela. Aurreko gobernuek, ordea, politika hori utzi zuten indarrrik gabe, nekazaritza suntsitu eta intsumo horietako inportatzaile zein merkaturatzaileen interesak lehenetsi zituen eredu neoliberalaren ondorioz. Hain zuzen ere, funtsean, bi enpresa handi dira eredu horren adierazgarri, eta oligopolio moduan dihardute, herrialdeko Konstituzioaren aurkakoa izan arren.

## b) INPORTAZIOEN ORDEZKAPENA

Ekoizle nazionalentzako berme-prezioetarako eta biztanleentzako oinarrizko elikagai merkeen hornikuntzarako politikaren helburu estrategia elikagaien inportazioak ordezkatzeko da. 6. taulan ikusten dugunez, nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen inportazioak adierazgarriak dira ekoizpen nazionalari begira. Gehienetan, joera goranzkoa da inportazioko balio eta bolumenei begira. Dinamika hori azkartu egingo da, herrialdeak merkataritza askerako sinatutako itunen esparruan hitzartutako zerga-arinketa ezartzen denean. Batez ere, Ipar Amerikako Estatu Batuekin sinatutako itunaz ari gara, baina, Europar Batasunarekin ere ituna sinatuko balitz, dinamika hori are azkarragoa izango litzateke. Taula berean, ikusi egin daiteke arto zuriaren, arto horiaren... inportazioetan zenbait jaitsiera egon direla krisiaren ondorioz. Lehen aipatu dugunez, BPG -%3 jaitsi arren, itunengatiko inportazioen pisua gero eta handiagoa da. Horregatik, merkataritza askerako itunen aurka gaude, eta, horrez gain, **itunok berriro negoziatzeko eta, euren ordezkari, lankidetzaren zein garapenerako itunak ezartzeko eskatzen dugu.** Hartara, laguntzak lortu ahal izango ditugu, geure nekazaritza garatzeko eta nekazaritzako zein abeltzaintzako ekoizpen osorako hitzartutako zerga-arinketarako prozesua indarrrik gabe uzteko. Hain zuzen ere, zerga-arinketarako prozesu horren ordezkari, muga-zergen babesari eta inportazio-kuotei buruzko politika ezarri behar da, garatutako edo ez garatutako ekonomietako nekazaritzaren eta gure nekazaritzaren artean egoera simetrikoa sortzeko. Bestetik, premiazkoa da hemen sektorerako proposatutako politika ekonomikoak ezartzea. Euren esker, gure nekazaritza lehiakorra izango denez, inportazioak ordezkatu egingo dira. Hori dela eta, enpresa berriak eta lanpostu ugari sortzeko prozesu dinamikoa garatuko da herrialdean, lehen mailako ekoizpenean nahiz elikagaigintzako eta elikagaigintzako ez den agroindustrian.

### 31. Taula

## OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA

OINARRIZKO ALEEN EKOIZPEN NAZIONALA	
2007-2008ko UZTA (KINTALETAN)	
<b>ARTO ZURIA</b>	18.407.300
<b>BABARRUNAK</b>	2.184.700
<b>ARROZA</b>	693.900
<b>BASARTOA</b>	3.997.300

### 32. Taula

## MUNDUKO LEKU GUZTietatik INPORTATUTAKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK

EL SALVADOR

PRODUCTOS AGRÍCOLAS IMPORTADOS DE TODAS PARTES DEL MUNDO

EN QUINTALES

PRODUCTOS	2005	2006	2007	2008	2009	Incremento o disminución en qq 2005 A 2009	Incremento o disminución en %
MAIZ BLANCO	1898435.74	2446739.82	3987955.03	3314685.51	2336853,38	438417.64	81,2%
MAIZ AMARILLO	8217121,49	10099368.39	8892313.64	8178011,29	7161122,64	-1055998.85	-13,7%
FRIJOLES	546065.20	673413.04	470347.83	598130.43			
SORGO	5527.92	21141.69	986.09	64242.22	4165,97	-1361.95	132,7%
ARROZ granza	1871295.25	1827,027.56	1571,510.46	1,545,562.88	1475874,78	-395420.47	-21,0%
ARROZ procesado	73574.60	223,765.69	263,578.49	255,427.27	362669,14	289094.54	20,3%
